EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDALIBURUA

16

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GASTEIZ 2008

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA

IZENBURUA: *Euskararen erabilera ez sexista*

EDITOREA ETA PRODUKTOREA: EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

AUTOREA: Amelia Barquín

MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA: ARRIN. Komunikazioa eta diseinua

DATA: 2008ko maiatza

ALE KOPURUA: 4.500

DESKRIBATZAILEAK: Hizkuntza sexista, euskera, gidak

DISEINU GRAFIKOA: Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón

ILUSTRATZAILEA: Ibon Garagarza

INPRIMATEGIA: ZURE. Estudios gráficos

ISBN: 978-84-89630-13-0

LEGE GORDAILUA: BI-1536-08

Salneurria: 5 euro

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7

1. SARRERA 11

2. GENEROAREN AZTERKETA EUSKARAN 17

2.1. Generoa aditzean: hitanoa 19

2.2. “Gizona”: erabilera espezifikoa 20

2.3. “Giz”- erroaren erabilera generikoa 22

2.4. “Gizona” hitz elkartuetan 24

2.5. Generoa daukaten izenak 25

2.6. Generoa daukaten izenen plurala edo generikoa 27

2.7. “-Sa” bukaerako femeninoak 28

2.8. Gaztelaniatik maileguak 29

2.9. “Anaia” hitzaren eratorrien erabilpena 30

2.10. Generorik gabeko izenak 31

2.11. Premiazkoak ez diren estrategiak 32

2.12. Asimetria lexikoan 33

2.13. “Andereñoa” 35

2.14. “Gizona” eta “gizon portatu” 35

2.15. “Neska” eta “emakume” irain moduan 36

2.16. Emakumeekin lotuta erabiltzen diren hitz batzuk 37

2.17. “Mari”- osagaia 39

2.18. Jauzi semantikoa 39

2.19. Androzentrismoa 41

2.20. Asimetria mezuetan 42

2.21. Atsotitzak edo esaera zaharrak 44

2.22. Emakumeen aipamen asimetrikoak 45

2.23. Simetriaren araua 46
2.24. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta *queer*-ak: LGBTQ 47
2.25. Ponte izenak 48
2.26. Naturaren errealitateak 49
2.27. Hiztegiak eta hiztegigileak 50
2.28. Azkeneko komentarioa 52

3. BIBLIOGRAFIA 55

AURKEZPENA

Aspalditik lan egiten dugu emakume askok, gizon batzuek eta hainbat erakundek emakumeak hizkuntzan era aske eta oso batean existitu daitezen, izena izan dezaten euren jarduera guztietan eta existitzeko eretan; horixe baita emakumeon egoera eta bizitza edozein esparrutan hobetzeko eretako bat —eta ez nolanahikoa— .

Hizkuntzaren erabilera hobetzeko ahalegin hau ez da berria; hainbat argitalpenek egiaztatzen du hori, eta horietan arrazoiak aztertu eta proposamenak egin dira, hizkuntzaren erabileran sexismoa eta androzentrismoa saihestearren. Hemendik urrun ez joatearren, Erakunde honek argitaratutakoak eta gaia era orokor batean jorratzen dutenak izendatuko ditut: *El lenguaje instrumento de progreso* (1); *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* (2) eta *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan* (3).

Orain gida batzuk egiteari ekin diogu, batetik, jendarteko sektore anitzetako profesionalek gero eta sarriago egiten dituzten eskakizunei erantzuteko (hain zuzen ere hizkuntzaren erabilera ez androzentrikoak eta ez sexistak ahalik eta ondoen ezartzeko aholku eta baliabideak eskuratu nahian), bestetik, beste urrats bat emateko, eta, azkenik, proposamen orokorren unea gainditzeko.

Hemen aurkezten dudan gida honetan generoari dagokionez euskararen erabileran egon daitezkeen arazoak aztertzen dira eta hausnarketa eta proposamenak egiten dira. Sarri eztabaidatu da euskarak, "genero gabeko" hizkuntza izanda, erabilera sexistarik sortzerik ote duen. Emakundek, 1992an, gai honen inguruan sentsibilitatea eragin eta arreta sortzea helburu zuen kartela argitaratu zuen, "Euskara sexista al da" lemapean. Goian aipatu dudan bigarren argitalpenean ere hausnarketa eta hainbat adibide ikus daiteke.

---

(1) *El lenguaje instrumento de progreso.* Emakunde, (1992) [Kultura Seriea, 1].

(2) *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak.* Emakunde, Vitoria-Gasteiz (1998).

(3) Bengoechea Bartolomé, Mercedes; Lledó Cunill, Eulàlia; López Diez, Pilar; Martín Rojo, Luisa y Gómez Esteban, Concepción. *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan.* Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2004.

Gure gizartean berdintasunaren bidean nabarmen aurrera egin dugun arren, kultura sexista eta androzentrista batean hezi eta bizi garela badakigu; ondorioz, errealitate hori azaltzen dugu hizkuntzaren erabileran, generodun nahiz genero-gabeko hizkuntza erabiltzaile izan. Hizkuntzak, errealitatea izendatzeaz gain, interpretatu eta sortu ere egiten du eta era honetan esparru eta eremu desberdinetan gizon eta emakumeek duten presentzia azaldu eta berdin baloratzen dituen hizkuntzaren erabilera beharrezkoa dugu. Bide honetan lagungarri izango den tresna izan nahi du gida honek.

Bukatzeko, gogora ekarri nahi dut aurrerapausoak egin direla eta hemendik zailtasunak gainditu hori posible egin dutenak zoriondu eta eskertu nahi ditut. Izan ere, ez dituzte soilik zailtasun teknikoak gainditu behar izan, baita hizkuntzan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna era ausart batean lortzeko egindako lanaren aurrean izan dituzten oztopo eta kritika ugariak ere. Horrez gain, zalantzan daudenak edo eragozpenak jartzen dituztenak lan honekin bat egitera animatu nahi ditut, azken finean jendarte demokratikoago eta berdintasunezko baten alde lan egiten ari baikara.

Izaskun Moyua Pinillos
EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

1. SARRERA

Orrialde hauen helburua hauxe da: euskararen erabilpenaren inguruan hausnarketa egitea generoari dagokionez eta zenbait proposamen egitea egoki adierazteko. Aldi berean, gaiarekiko sentsibilitatea eragin nahiko genuke, garrantzitsua baita hiztunok kontzientzia hartzea gure adierazpena zain dezagun.

Lehenengo galdera, agian, hauxe izan daiteke: ba al dago zer hausnartu eremu horretan? Beste modu batean esanda, erabiltzen da –edo erabil daiteke– euskara desegoki generoari dagokionez? Batzuen ustez ez; euskara "genero hizkuntza" ez denez, ez omen dago aukerarik erabilpen sexistarik egiteko. Izan ere, ez dira gutxi esan eta idatzi dutenak euskara ez dela beste hizkuntza batzuk bezain sexista, edo, zuzenean, euskara ez dela "hizkuntza sexista".

Komeni da iritzi horien jatorria azaltzea. Ideia horiek, ziur aski, auzo-erdaren konparaziotik abiatzen dira: dakigunez, bai gaztelania bai frantsesa –beste hizkuntza erromanikoak bezala eta beste hainbat hizkuntza bezala Europan eta mundu osoan– genero hizkuntzak dira; genero kategoria daukate. Alegia, gaztelaniak eta frantsesak femeninoa eta maskulinoa dauzkate (garai bateko neutroaren aztarna batzuez gain): "niña / niño"; "actrice" / "acteur". Hizkuntza horien sisteman, gainera, maskulinoa orokor edo generiko gisa erabiltzen da, hau da, izendatutako errealitatea gizonek eta emakumeek osatzen dutenean edo errealitate horren genero konposizioa ez dakigunean: "los niños de la escuela", "les acteurs".

Hainbat ahotsek arbuiatu dute maskulino generikoaren erabilpena hizkuntza horietan, emakumeak ezkutatzen dituela argudiatuta eta emakumeak momentu oro izendatu behar direla defendatuta. Horren ondorioz beste alternatiba batzuk proposatu dira, eta arrakasta gehiagoz edo gutxiagoz erabiltzen ari dira: @ ikurra, femenino eta maskulinoren alternantzia, izen orokorrak kolektibo mistoei erreferentzia egiteko… Alternatiba horiek hainbat gidatan jaso dira azkeneko urteetan. Haien benetako erabilpena, baina, nahiko urria da (aipatutako estrategia horietako batzuk erabiltzen dira erakunde ofizialen eta gizarte-mugimenduen idatzizko testu formaletan batez ere).

Dudarik ez, erdaretan dagoen maskulino generikoa euskaran ez egoteak nabarmen errazten du hiztunon adierazpena eta hainbat buruhauste aldentzen ditu, baina uste dugu alderdi horrek bakarrik ez digula arreta erakarri behar. Euskaran ere badaude hainbat aspektu "generoz" tindatuta daudenak, eta horrek hausnartzea merezi du. Izan ere, generoa presente dagoen eremuetan zenbait arazo sortzen zaizkigu, aurrerago ikusiko dugunez.

Esan dezagun, bestalde, hizkuntza batek generoa edukitzeak ala ez loturarik ez daukala, berez, gizartea parekoagoa edo ez-parekoagoa izatearekin. Munduan badaude generoa daukaten hizkuntzak (bi genero frantsesean eta gaztelanian, hiru genero alemaneran, sei genero swahilian…) eta badaude generorik gabeko hizkuntzak, euskara eta mongoliera bezala. Ezin da sailkapen sinplerik planteatu aipatu parametroen arabera; ez da zuzena esatea generoa daukatenak sexistagoak direla besteak baino. Izan ere, esparru pribatua eta publikoaren banaketa generoen artean eta esparru publikoarekin lotutako prestigioa gizarte guzti-guztietan –euskal gi-

zartean ere– hautematen dira, ikerketek kontrakoa frogatu arte; hori bai, era desberdinetan eta gizarte eta garai bakoitzari egokituak.

Berrartuko dugu hasieran aipatutako kontu bat: hizkuntzak sexistak izan daitezke? Hizkuntza batzuk beste batzuk baino sexistagoak dira? Uste dugu galderen formulazioa ez dela egokia. Ulergarria dirudi gizarteen izaera historiko ez-parekoek hizkuntzetan aztarnak uzteak. Susmatzen dugu munduko hizkuntzetan aurkitu ahal ditugula gizarteetan egon den eta dagoen generoen desberdintasunaren markak. Euskaran ere aurkituko ditugu: hitz batzuen esanahia, termino batzuen adieraren desberdintasuna emakumeei edo gizonei aplikatzen zaizkielarik... Eta aldi berean, esan behar da hiztunen ekoizpenetan hautemandako sexismoa hizkuntzaren erabilpenean dagoela gehienetan eta ez hizkuntzaren sisteman. Hiztunak, beraz, adierazteko modua aukeratu ahal du eta erabilera egokia egin dezake; hizkuntzak ez du desegoki adieraztera behartzen.

Ez dezagun ahaztu, bestalde, euskaldunak elebidunak garela; paradoxikoa izango litzateke pertsona berberak hizkuntza batean adieraztea modu sexista batean eta beste hizkuntzan modu egokian. Ziur aski generoei buruzko gure ikuspegia eta gure jarrerak antzekoak izango dira erabiltzen ditugun bi hizkuntzetan eta bi hizkuntzetan islatuko dira.

Hasieran esan bezala, testu honen helburua hau da: generoarekin lotura daukaten alderdiak aztertzea euskaran eta ahal den heinean proposamenak egitea generoei dagokien aniztasuna errespetuz eta ekitatez tratatzeko linguistikoki. Eta, dudarik ez, errespetu eta zuzentasun linguistikoak lagungarriak izango dira gizartean generoen arteko berdintasuna lortzeko ahaleginean.

"Genero" hitza agertu zaigu behin baino gehiagotan. Jakina da generoa eraikuntza soziala dela (eta sexua, gertaera biologikoa); errealitatea bi generotan daukagu sailkatuta: femeninoa eta maskulinoa. Baina garrantzitsua da gogoratzea kategorien arteko mugak hein batean lausotzen joan direla: gaur egungo hainbat ahotsek azaltzen dute pertsonen identitate generikoa aldakorra izan daitekeela eta are sailka ezina ere; transgeneroen eta *queer*-en presentziak hala konfirmatzen du. Hizkuntzaren bidez aniztasuna errespetatu nahi duen hiztunak kontuan hartu beharko du identitatea eraikitzeko aukera guztiek begirunea merezi dutela.

Lan honen asmoa gida bat izatea da, baina ohartarazi behar dugu ez dela erabat normatiboa. Egia esan, atal gehienetan aholkuak emango ditugu eta zenbait erabilpenen kontra argudiatuko dugu. Beste atal batzuetan, berriz, dauden aukerak aurkeztuko ditugu eta ez dugu haietako baten alde egingo. Zeintzuk dira gure jokaeraren arrazoiak? Badaude alderdi batzuk nahiko eztabaidatuak izan direnak eta kontsensua lortu dutenak. Beste batzuk, berriz, ezbaian izan dira, baina ez da adostasunik gertatu; hor nahiago izan dugu eztabaida planteatzea, gero nork bere erabakiak har ditzan. Hainbat alderdi, bestalde, ez dira orain arte ez diskutitu ez ikertu: batzuen aurrean hainbat unetan zentzuak emango dizkigu irizpideak; beste batzuen aurrean, ostera, debatea eta ikerketa beharko dira oraindik.

Hala ere, testu honek gidek daukaten ulergarritasun maila lortu nahiko luke. Gaiarekin lotutako oinarrizko alderdiak argitzen ahalegindu gara, baina ez gara alderdi linguistikoetan sakon sartu eta hizkuntza teknizismoak saihesten saiatu gara, hizkuntzan adituak ez direnek ere ulertu ahal izateko.

Helburu horrekin ere, ez dugu testua zamatu erreferentzia bibliografikoekin eta erudituekin. Zenbait testu idatzi dira orain arte euskara eta sexismoaren inguruan; orri hauek idazteko erabilgarriak izan zaizkigunak bibliografian jaso ditugu. Gure asmoa, bestalde, ez da izan lan exhaustiboa aurkeztea: hainbat adibide utzi ditugu bidean, eta baita azalpen batzuk ere, irakurgarritasunaren alde.

Testuan zehar jarritako adibideak anitzak dira: haien jatorria ahozkoa zein idatzizkoa da, formalitate maila desberdinekoak, mota guztietako generoetakoak (egunkariko iragarkia, aldizkariko iritzi artikulua, ahozko elkarrizketa informala…). Adibideen autorea jartzea ez zaigu garrantzitsua iruditu; erabilera sexisten "errudunak" seinalatzea ez da gure helburua izan; adibide batzuen formulazioa apur bat aldatu dugu hain zuzen ez seinalatzeko. Adibide literario batean, berriz, bai ipini behar izan dugu jatorria.

Adibideak jartzeko hiztegiak ere erabili ditugu baliabide gisa. Sarasolaren *Euskal hiztegia*ren azken edizioan (Donostia 2007) erabili dugu; euskara-euskara da, zabala da eta asko erabiltzen da. *Erein Euskarazko hiztegia* (Donostia 2005) ere baliatu dugu euskara-euskara delako; aurrekoa baino laburragoa da eta azalpen eta adibide gutxiago ditu (eta azalpenak antzekoak dira). Komenigarria iruditu zaigunean, beste hiztegi batzuk ere erabili ditugu osagarri moduan, batez ere *Elhuyar hiztegia euskara-gaztelania gaztelania-euskara* (Usurbil 1996), baina baita beste batzuk ere (bibliografian daude). Ohartarazi behar dugu ez dugula hiztegien erabilpen exhaustiborik egin, soilik gure helburuentzat aproposa iruditu zaigun heinean. Gure asmoa ez da izan aztertzea termino bakoitza hiztegi guztietan nola dagoen jasota, hau ez baita lan bat hiztegiei buruz. Zalantzarik gabe mereziko luke lan hori egitea eta testu honen azkenaurreko ataleko adibide batzuek adierazten dute zein puntutaraino izan daitekeen interesgarria sexismoa aztertzea euskarazko hiztegietan.

Aipatutako bi hiztegietatik (*Euskal hiztegia* eta *Elhuyar hiztegia*-tik) sarrera bat transkribatzen dugunean, ez dugu abisatuko nondik hartzen dugun. Beste hiztegi batzuk erabili ditugunean hala adierazi dugu. Hiztegi bakoitzak bere konbentzioak dauzka eta hitzak eta adierak aurkezteko moduak. Konbentzio horietan aldaketa txiki batzuk egin ditugu hitz guztiak modu antzekoan agertzeko orrialde hauetan.

Ez ditugu hartu, bestalde, eguneroko kontsulta arruntetarako "zahar" geratu diren hiztegiak. Dudarik gabe, hiztegi batzuk oso interesgarriak izan daitezke haien edukia ikertzeko xedea duten lanetan, baina hori gure helburuetatik urruntzen da. Bestalde, gure azalpenetan ez ditugu jaso ez aztertu erabilera eskaseko hitzak edo gaur oso zabalduta ez daudenak. Saiatu gara, berriz, adibide arruntak eta eguneroko bizitzakoak jartzen. Jakin badakigu euskalkiek eta

tokietako hizkerek adibide gehiago eskaini ahal dituztela; lehen esan bezala, ez da gure asmoa izan gaia agortzea, alderdi esanguratsuenak agertzea baizik.

Sarrera bukatzeko Iban Zaldua eta Mitxel Kaltzakorta lagunei eskertu nahi diegu testu honen irakurketa kritikoa.

2. GENEROAREN AZTERKETA EUSKARAN

2.1. GENEROA ADITZEAN: HITANOA

Hitanoa erabiltzeak eskatzen du hiztunak solaskidearen generoa kontuan izatea; aditzean marka desberdina utziko du generoaren arabera: "erretzeari utzi iezaio**n**!" (emakume bati, *noka*) eta "erretzeari utzi iezaio**k**!" (gizon bati, *toka*).

Erabilpenean, baina, arazoak sortzen dira solaskidea ez denean pertsona bakarra edo genero bakar batek osatutako taldea denean. Kasu horietan hitanoa desegoki baliatzen da maiz: atzizki maskulinoak erabiltzen dira. Eta hori gertatzen da bai ahoz (lagunartean, familiartean, abestietan…), bai idatziz (oharretan, iragarkietan…).

Zein da erabilpen desegoki horren alternatiba? Alde batetik, "zu" tratamendua erabiltzea dago. Baina beste estrategia batzuk ere erabili daitezke: inperatiboan, kasu, ez da ezinbestekoa aditz laguntzailea jartzea. Hona hemen adibide batzuk eta alboan aukera egokia (lehenengo hirurak iragarkietatik datoz; azkenekoak, abestietatik):

*Erreatzeari utzi **iezaiok** ➔ Erreatzeari **utzi***

*Kirola gustatzen **zaik** ➔ Kirola gustatzen **zaizu***

*Ekar **ezak** hire proposamena ➔ Ekarri hire / zure proposamena*

*Kanta **ezak** euskalduna, kanta ezak hire herrira ➔ Kanta **ezazu** euskalduna, kanta ezazu zure herrira*

*Euskal Herria **diagu** zain ➔ Euskal Herria **dugu** zain*

Hitanoaren erabilpen desegokia saiheste aldera, aukera aitzindari bat aipatu ahal dugu: femeninoa era maskulinoaren atzizkiak elkartzea. Antton Olariaga marrazkilariak estrategia hori erabiltzen du "Zakilixut" izeneko komiki-tiran (*Berria* egunkarian argitaratzen da). Horrela zuzentzen zaio tiraren protagonista egunkariaren irakurleari:

*Bestela, amaitu ondoren jasoko **dunk** fruiturik lehorrena*

*Infernuetarako jaitsieran, ustez galdutako trenetik jaitsarazten **gaitiztenk***

Lehenengo adibidean ez da agertzen ez "dun" ez "duk", baizik eta "dunk". Bigarrenean ez "gaitiztek" ez "gaitizten", baizik eta "gaitiztenk".

Telebista programa baten izenburuan estrategia berbera erabili da: "Wazema**nk**" ("goazen" aditzaren baliokidea hitanoan, telefonoen *sms*-n estiloa erabilita). Aldizkari batean bere zuzendariari egindako elkarrizketa baten titulua hauxe izan zen: "Anjel Alkain. Harrapaza**nk**!"

Estrategia horren erabilpena murritza da; denborak esango du zein hedapen lortzen duen.

Jakina denez, hitanoaren biziraupena ez dago bermatuta; hainbat herritan galdu edo galtzen ari da. Bestalde, euskaldun berri gehienek ez dute ondo ikasi eta ez dute erabiltzen. Hitanoa bizirik dagoen herrietan galeraren lehenengo biktima hitano femeninoa da; era femeninoak eskasago menperatzen dira eta horren ondorioz joera zabaltzen da emakumeei –erabat desegoki– toka ere zuzentzeko:

Hi, neska, ekarri **ezak soka hori!*

Bestalde, eskolan eta batuaz euskalduntzen diren umeek harreman gutxi dute hitanoarekin: ia bakarra telebistaren bidez lortzen da, eta batez ere marrazki bizidunen bidez. Programa horietan, baina, pertsonai gehienak maskulinoak dira eta solaskide maskulinoari zuzendutako hitanoa entzuten da gehienbat. Ondorioz umeek ikasten dituzten forma urriak horiexek dira.

Jakin badakigu, baina, ikerlari batzuek hitanoaren morfema maskulinoa "generiko" moduan azaltzen dutela, solaskide femeninoa ere jaso ahal duela esanez. Unanua Garmendiak (2008: 130) gogorarazten digunez, Koldo Mitxelenaren arabera, morfema maskulinoak ez du adierazten solaskidea maskulinoa denik, baizik eta bere sexua seinalatzeak ez duela garrantzirik. Mitxelenaren hitzetan, morfema maskulinoa "neutroa" da generoari dagokionez.

Berriz, Alberdi Larizgoitiak (2003b) azaltzen duenez, "Emetasuna ageri-agerian ez bada eta berariaz azpimarratu nahi ez bada, toketa da aukera seguruena eta ohikoena animalia emeekin". Animaliei, beraz, hika maskulinoan mintzatzen zaie orokorrean, arra edo emea den bereiztu gabe. Horrek guztiak zer pentsatu ematen du.

Beste alderdi bat da emakumeek bere buruari edo bere buruarekin hika hitz egiten dutenean nola hitz egiten duten. Segurolak (1992) bereizten zuen nork bere buruarekin hitz egitea eta nork bere buruari hitz egitea: baieztatzen zuen emakumeak bere buruarekin toka mintzatzen direla ("honek jo ziguk adarra"); bere buruari solas egiten diotenean, berriz, noka ("ezin dun hori egin"). Alberdi Larizgoitia (2003b) ados agertzen da Segurolarekin. Mendiguren Elizegik (2003), berriz, adierazten du: "[…] bakarrizketa horiek ozenki egiten diren neurrian esan dezaket, hiztun onak ziren emakumezkoei, toka aditu izan diedala beti". Gai honi buruz ikertzea dago.

2.2. "GIZONA": ERABILERA ESPEZIFIKOA

Jakin badakigu tradizioan eta literaturan "gizona" hitza erabili dela bai gizonak bakarrik bai gizonak eta emakumeak izendatzeko. Hiztegi batzuek oraindik bi esanahiak jasotzen dituzte. Hona hemen bi adibide:

Gizon. 1. Gizakia, lurreko abere mota garatueneko kidea. Ikus **giza-**. [*Adibideak*]. 2. Gizaki arra. Ikus **gizonezko**; **gizaseme**; **emakume**. [*Adibideak*]. […]

Gizon. 1. Lurreko abere mota garatueneko kidea, gizakia. 2. Gizaki arra, gizonezkoa. […]

Azpimarratzekoa da bai *Euskal hiztegia*-k (lehenengo adibidean) bai *Erein euskarazko hiztegia*-k (bigarren adibidean) lehendabizi zentzu generikoko adiera jartzen dutela. *Elhuyar hiztegia*-n, berriz, lehenengo zentzua espezifikoa da. *3000 hiztegia*-k, azkenik, ez du zentzu generikoa jasotzen, espezifiko moduan soilik azaltzen du hitza.

Argi ikusten da, baina, bi erabilerak bereizteko premia, anbiguotasunak saihesteko. Izan ere, ondorengo esaldia bi modutara uler daiteke, gizonezkoak izan edo gizon eta emakumeak izan:

Auzo horretan bost mila gizon bizi dira

Anbiguotasun hori ekiditeko eta "pertsona arra = gizakia" eragiketa ere saihesteko, "gizona" zentzu espezifikoan (pertsona arra izendatzeko) soilik erabiltzeko aldarrikatu behar dugu. Desegokia da, beraz, modu orokorrean edo generikoan (emakumeentzat ere) erabiltzea.

Jakin badakigu, baina, oraindik "gizona" generiko moduan erabiltzen dela:

Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **gizonak? Non daude herri honek independentzia behar duela etengabe aldarrikatuko duten politikariak?* (egunkari artikulu batean).

**__Gizonak__ badu inguru latz bat menperatzeko premia…* ("Izarren hautsa" abestian).

Egokiak:

*Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **pertsonak / gizakiak**? Non daude herri honek independentzia behar duela etengabe aldarrikatuko duten politikariak?*

***Gizakiak / pertsonak** badu inguru latz bat menperatzeko premia…*

Orduan zentzu generikoa adierazteko "gizakiak" eta "pertsonak" erabili ahal ditugu? Eztabaida egon da "gizakia" hitza egokia ote den eta hurrengo atalean aztertuko dugu zergatik.

Bestalde, "gizonezko" hitza ere bi esanahiekin agertzen da zenbait hiztegitan:

Gizonezko. 1. Gizonarena, gizonari dagokiona. *Bi adimen edo ezaguera, jainkozkoa eta ginonezkoa*. 2. Gizona, gizaki arra. Bi gizonezko, bat nagusia, eta mutil kozkorra.

Gizonezko. 1. Humano, –a; del ser humano. *Bi ezaguera, jainkozkoa eta gizonezkoa*: Dos inteligencias, la divina y la humana. 2. Masculino, -a, de hombre. 3. Hombre, varón. [*Adibideak*].

Hemen ere gomendagarria da hitza zentzu espezifikoan erabiltzea eta ez generikoan. Horren arabera, hiztegi horietan adibide moduan agertzen diren esaldiak ez dira egokiak, "gizonezko" hitza pertsona edo gizakiarekin lotuta ere ulertzen dutelako.

Konturatu behar gara, gainera, "gizon" osagaia dituzten hitzak ere espezifikoak direla:

gizonki, gizontasuna, gizonkeria…

Konparatzeko, esango dugu emakumeak izendatzeko hitzak espezifikoak direla eta inoiz ez dutela erabilera generikorik izan.

emakumea, emakumezkoa, emaztea, emaztekia, andrea, gizalaba...

2.3. "GIZ"- ERROAREN ERABILERA GENERIKOA

Esan bezala, "gizona" espezifikoa da. Zer erabili orduan generiko moduan? "Gizakia"?

Gai eztabaidatua izan da "giz"- erroa modu generikoan erabiltzea egokia ote den eta bi jarrera nagusitu dira: bat, "giz"- erroaren erabilpen generikoa arbuiatzea; bestea, erabiltzearen aldekoa. Ikus ditzagun biak.

Zeintzuk dira arbuioaren arrazoiak? "Giz"- agertzen da zentzu generikoan dauzkaten hitzetan, baina baita espezifikoa daukatenetan ere. Hona hemen, giz- erroa zentzu generikoa daukaten zenbait hitz:

gizakia, gizartea, gizadia, gizabidea, gizabidetsua, gizalegea, gizabanakoa, gizataldea, gizateria, gizajendea, gizahilketa, gizahiltzailea, gizatiarra, gizatasuna, gizakuntza...

Baina, esan bezala, "giz"- aurkitu ahal dugu zentzu maskulino duten errealitateak izendatzeko; erabilera espezifikoa dauka, beraz. Haien artean "gizon" hitza dago eta bere eratorriak:

gizasemea, gizagaixoa, gizajoa (gajoa emakumeentzat), gizakotea, gizakoia, gizagaldua, gizon, gizonki, gizontasuna, gizonkeria…

"Gizakia" zentzu generikoan ez erabiltzeko beste argudio bat da Iparraldean egun "gizaki" maskulino moduan erabiltzen dela "emazteki" femeninoaren aldean. Izan ere "gizakia" hitzak bi zentzuekin agertzen da zenbait hiztegitan:

> **Gizaki**: 1. (*Batez ere Nafarroan. Gutxi erabiltzen den adiera*). Gizasemea. *Gizakiak eta emakumeak*. 2. Giza arrazako banakoa, arra nahiz emea. […]
>
> **Gizaki**: 1. Hombre, ser humano. [*Adibideak*]. 2. Hombre, varón. [*Adibideak*].

Euskal hiztegia-k adierak aurkezteko ordena deigarria da (lehenengo adibidea da). *Elhuyar hiztegia*-n (bigarren adibidean) zentzu orokorra lehenago aurkezten da espezifikoa baino. *3000 hiztegia*-n, berriz, zentzu generikoa baino ez da agertzen.

Gaur egun pertsona eta komunikabide batzuk ahalegintzen ari dira "giz"- erroa zentzu generikoan ez erabiltzen; desegokitzat jotzen dute *pertsonak* izendatzeko hitzak eta *pertsona arrak* izendatzekoak sustrai berbera izatea (arrak pertsonak *per se* balira bezala), *pertsona emeekin* gertatzen ez den bezala. Horren ondorioz, "giz"- daukaten hitz generikoak ez dituzte erabiltzen. Beste alternatiba batzuk defendatu dituzte:

> *"jendea* hitza *"gizakiaren"* ordez (Iparraldeko toki batzuetan erabiltzen den bezala) edo *"pertsona"*, *"laguna"*, *"jendakia"*; *"jendartea"* hitza *"gizartearen"* ordez, edo *"sozietatea"*, *"gizon-emakumeak"*; *"jendetasuna"* hitza *"gizalegearen"* ordez; *"belaunaldia"*; *"jendetasuna"*; *"humano"* (*"harreman humanoak"* eta *"eskubide humanoak"* erabiliz *"giza harremanak"* eta *"giza eskubideak"* erabili beharrean); *"soziala"* (*"arazo soziala"* eta ez *"gizarte arazoa"* edo *"giza arazoa"*)…

Alternatiba horietako batzuk, baina, eztabaidatuak izan dira. Izan ere, "jendea" hitzaren zentzu kolektiboa oso hedatuta dago hizkuntzan, singularra ("pertsona" adiera) baino gehiago. Zaila da, beraz, hiztun askorentzat espezifikotzat hartzea, eta erabilpen hori ez da oso sarria. "Jendakiari" antzeko gertatzen zaio: zentzu kolektiboa dauka hizkuntzan eta erabilera espezifikoa ez da zabaldu. Berriz, "jendartea" erabiltzen da talde txikiak eta hurbilak izendatzeko; "gizarteak" zentzu zabalagoa dauka.

Gehitu behar da "humanoa" latineko *homo, -nis* hitzetik datorrela. Egia da *homo* latinez hitz generikoa zela, baina gaztelaniako eta frantseseko egungo emaitzak, *hombre* eta *homme*, espezifikoak dira gaur egun. "Eskubide humanoak" ez da, beraz, aukera hobea "giza eskubideak" baino.

Aztertu ditugun alternatiba horiek, beraz, desabantailak dauzkate; ez dira ordezkatu behar dituzten terminoen erabat baliokideak. Erabilpenak berak haien esanahiak zabaldu ahal ditu, baina erabilera zentzu horiekin ez da, egun, handia.

Aipatutako beste alternatibak ("pertsona", "laguna", "sozietatea", "soziala", "gizon-emakumeak", "belaunaldia", "jendetasuna"...) bai dira oso erabiliak, "giz"- erroa daukaten baliokideak bezainbeste. Oro har hiztunek berdin erabiltzen dituzte batzuk eta besteak.

Lehenago esan bezala, gaiari buruz hausnartu dutenen artean beste jarrera bat dago, alegia, "giz"- osagaia modu generikoan ere erabiltzen jarraitzearen alde. Horretarako, argudio nagusia da hitzek haien bidea egiten dutela eta esanahiak ere garatzen direla: ohikoa da hitz batek daukan esanahia ez izatea beste garai batean izan duena. Hiztun arruntek (ez filologoek, ez hizkuntzalariek, ez hizkuntzaren ikerlariek...) ez dute hitzen etimologiaren eta bilakaeraren kontzientzia: zein hiztunek dauka presente, "gorrotoa" hitza erabiltzean, latin arrunteko *corruptu*-tik datorrela? Eta "gauza" hitza erabiltzean, latineko *causa*-tik datorrela? Edo "erdara", berriz, *erdi era* besterik ez dela? Gaztelaniaz ere, "hombre"-ren erabilera espezifikoa aldarrikatzen den bitartean, ez da eztabaidatu "humano" hitzaren zentzu generikoa; hiztunek ez dute "humano" izenondoa "hombre" izenarekin lotzen, etimologikoki lotuta badaude ere.

Horren arabera, hiztunarentzat "gizakiak" ez luke izango "gizon" hitzak duen zentzu maskulinoa.

Egungo "hizkuntza ez sexistarako gida" ugarik "gizakia" proposatzen dute generikoa adierazteko. "Gizakia" zentzu generikoan erabiltzeak dakar, noski, zentzu espezifikoan inoiz ez erabiltzea. Horretarako "gizona" dago.

"Gizakia" begi onez ikusten dutenek arazorik gabe onartzen dituzte "giz"- erroa daukaten beste hitzak ere.

Gehitu behar da, azkenik, asko erabiltzen direla esparru guztietan "giz"-ekin generikoak. Hiztun gehienek baliatzen dituzte bai ahoz bai idatziz, testuinguru formal eta informaletan.

2.4. "GIZONA" HITZ ELKARTUETAN

Hainbat hitz elkartu daitezke "gizon" osagaiarekin:

lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, elizgizona, plazagizona, itsasgizona...

Hitz konposatu hauek egokiak izango dira baldin eta esanahi espezifikoa badaukate. Erreferentzia egiten badiote talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati, "gizon" osagaia aldatu beharko dugu, "-ari" atzizkia, "langile", "pertsona" etab. erabiliz:

legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea…

Posible da, noski, kolektiboa erabiltzea (jendea), eta generoa zehaztuko dugu pertsonarena baldin badakigu:

kultur gizona, kultur emakumea, kultur jendea...

Egokiak:

(…) gure aita ez zen politikaria, ***enpresa-gizona*** *baizik*

Josune Morales. ***Enpresa-emakumea***

Taberna, jatetxe eta ostatuetako ***enpresa-jendea*** *formatzen jarraitu*

Hona hemen bi erabilpen desegoki:

Esperientziaren bortxaz, ***enpresa-gizonak*** *ohartu dira sobera indarra ematea sektore bakarrari arriskutsua dela*

Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, ***enpresa gizonak****, abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu?*

Egokiak:

Esperientziaren bortxaz, ***enpresa-jendea*** *ohartu da /* ***enpresa gizon-emakumeak*** *ohartu dira sobera indarra ematea sektore bakarrari arriskutsua dela*

Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, ***enpresa jendea / enpresa gizon-emakumeak****, abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu?*

2.5. GENEROA DAUKATEN IZENAK

Euskaran hainbat izenek generoa daukate, bai animaliak izendatzeko (*behorra* eta *zaldia, ardia* eta *aharia, ahuntza* eta a*kerra, oiloa* eta *oilarra*…) bai pertsonei erreferentzia egiteko:

gizalaba, emakumea, emakumezkoa, andrea, andregaia, emaztea, neska... / gizasemea, gizonezkoa, senarra, senargaia, mutila, jauna…

Badaude senidetasuna adierazten duten beste izen generodun batzuk ere:

ama, amona, izeba, erraina, alaba, ahizpa, arreba... / aita, aitona, osaba, suhia, semea, anaia, neba...

Ohar gaitezen euskaran lau hitz daudela auzo-hizkuntzetan bi dauden tokian: "neba", "arreba", "ahizpa" eta "anaia".

Aipatutakoen eratorriek ere generoa daukate:

Amabirjina, Aita-santua, alababitxia, aitapontekoa...

Halaber, gauza bera gertatzen da jarduera jakin batzuekin ere:

serora, moja, etxekoandrea, sorgina, inudea, prostituta (eta puta, emagaldua, urdanga zentzu gutxiesgarriaz), erregina, neskamea, andereñoa, maistra.../ lekaidea, fraidea, apaiza, erretorea, aztia, erregea, morroia, prostitutua, maisua...

Generoa daukaten hitzen artean aniztasun handia dago:

— "Inudea" bularra ematearekin dago lotuta eta ez dauka baliokiderik.

— Hitz batzuen atzean ez parekoa den genero rolen banaketa egon badago, "etxekoandrea"-ren kasua da. Baliokide maskulinoa osatzeak ez dauka zailtasunik: "etxekoandrea" > "etxeko jauna". Irudipena daukagu "etxeko gizon" zabalduago dagoela "etxeko jauna" baino.

— Generoen araberako funtzioen desberdintasuna agertzen da, halaber, "apaiza" edo "erretorea" hitzetan (emakumeentzako "serora" eta "moja" ez dira baliokideak); lanbide horiek gizonek soilik egin eta egiten dituztelako bertako erlijio nagusian. Bai erabili daitezke erlijio batzuei dagokienez, non emakumeek ere funtzio horiek betetzen dituzten.

— *Elhuyar hiztegia*–k "prostitutu" eta "puto" gizonentzat jasotzen ditu, beste hiztegiek ez bezala. Izan ere, askoz gutxiago erabiltzen dira horiek "prostituta", "emagaldua", "puta" edo "urdanga" baino. Jakina denez, askotan irain moduan baliatzen dira eta ez lanbide baten beharginak izendatzeko.

Gogoratu behar da, bestalde, "puta" (eta ez "puto") hitza ahozko hizkera informalean erabiltzen dela izenondo moduan zerbait gogaikarria dela adierazteko:

*Kopetaraino nauka lan **puta** honek!*

*Ez dakit zer egin liburu **puta** horrekin!*

2.6. GENEROA DAUKATEN IZENEN PLURALA EDO GENERIKOA

Zer egin generoa daukaten izenekin plurala erabiltzean edo izendatutako pertsonaren generoa ez dakigunean? Orduan femenino eta maskulinoaren elkartea erabili behar da: *seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak...*

Izan ere, izen maskulinoak –*semea, mutila, jauna...*– desegoki erabiltzen dira maiz, alegia, bi generoak izendatzeko.

Hona hemen adibide oker batzuk (aldamenean zuzenduta):

Zenbat **seme dituzu? ➔ Zenbat s**eme-alaba** / **ume** dituzu?*

Kanguru hau triste dago ez baitauka **semerik ➔ ez baitauka **umerik** / **kumerik***

Eskola honen **mutilentzako festa ➔ Eskola honen **neska-mutilentzako** festa*

Zure **aitonek oparitu dizute? ➔ Zure **aitona-amonek** oparitu dizute?*

Zure **aitak etorriko dira? ➔ Zure **gurasoak** / **aita-amak** etorriko dira?*

****Osabak** etorri dira ➔ **Osaba-izebak** etorri dira*

Guztiok gara euskaldun, guztiok **anaiak ➔ gara guztiok **neba-arrebak** gara*

Ikasleen **anai-arrebak ere etor daitezke ➔ Ikasleen **neba-arrebak** ere etor daitezke*

Eskolako **maisu guztiak gonbidatuta daude ➔ Eskolako **maisu-maistra** / **irakasle** guztiak gonbidatuta daude*

****Errege** Katolikoen konkista ➔ **Errege-erregina** Katolikoen konkista*

Probintziako alkate **jaun guztiek erantzun diote deialdiari ➔ Probintziako alkate **jaun-andre** guztiek erantzun diote deialdiari*

Eta bi izenen elkarteetan zein jartzen da lehendabizi, femeninoa edo maskulinoa? Zergatik "seme-alabak" baina "neska-mutilak"? Muruagak (1993) azaltzen du elkarte horietan silaba gutxiago daukan hitza aurrean doala. Gure aldetik gehitu behar dugu silaben kopuru berbera

daukatenen artean beti aurkitu dugula maskulinoa femeninoaren aurrean: “aiton-amonak”, “aita-amak”, “osaba-izebak”…

Gogoratu dezagun, azkenik, “Agur jauna” kanta hainbat ekitalditan abesten dela gaur egun saio bati amaiera emateko eta pertsona jakin batzuei omenaldia eskaintzeko, gizonak edo emakumeak izan. Baina “jauna” hitzak zentzu maskulinoa dauka euskaraz, ez du femeninoa barneratzen; bere erabilpena testuinguru horietan desegokia da, beraz.

2.7. “-SA” BUKAERAKO FEMENINOAK

Zubereran “-sa” atzizkia izen femeninoak osatzeko erabiltzen da. Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde, berriak dira edo maileguak. Hona hemen zenbait adibide:

alkatesa, aktoresa, jainkosa, alarguntsa, artzaintsa, laborarisa, ostalersa, idazlesa, betsolarisa, idazkarisa, langilesa, euskaltzaintsa, iragarlesa, dantzarisa, ikaslesa, doktoresa, abadesa, dukesa...

Hitz horien erabilpen orokorra nahiko mugatua izan arren, gero eta hedatuago daude haietako batzuk: “alkatesa”, “aktoresa”… Baliteke hedatze hori politikoki zuzena izateko joerarekin lotuta egotea eta gaztelanian eta frantsesean emakumeak izendatzeko aldarrikapenekin zerikusirik izatea, baina bide hori ez doa euskararen izaerarekin bat eta hizkuntzak ez du estrategia hori behar. Hortik jarraitzekotan, euskaran ere “bikoteak” joango dira sortzen, frantsesa eta gaztelaniaren erara (*doctora / doctor; doctoresse / docteur)*.

“-Sa” atzizkia erabiltzeak ondorio bat dauka: “-sa” atzizkirik gabeko izena maskulino bihurtzen du. “Langile” hitzak, berez, ez dauka generorik –euskaran hitz gehienekin gertatzen den bezala– eta emakumeei eta gizonei aplika dakieke. Baina “langilesa” erabiltzen hasten bagara, “langile” hitza espezifikoagoa gelditukо da, gizonentzat bakarrik. Ondorioz, talde mistoak izendatzeko elkarteak beharko ditugu:

Adibidea:

**Udaletxeko langile-langilesa guztiak daude gonbidatuta*

Egokia:

Udaletxeko langile guztiak daude gonbidatuta

Testuak berak edo testuinguruak adierazten du askotan pertsonaren generoa. Inoiz pertsonaren generoa nabarmendu nahi izatekotan, nahiko da horrela egitea:

emakumezko aktorea, emakume alarguna, neska dantzaria, gizon dantzaria…

Adibide bat:

Edurne P.* ***alkatesak* *museo berria bisitatu zuen*

Egokiagoa:

Edurne P. ***alkateak / alkate andreak*** *museo berria bisitatu zuen*

Adibide bat:

*****Aktoresa*** *onenaren saria Kidmanek jaso zuen*

Egokia:

Emakumezko aktore *onenaren saria Kidmanek jaso zuen*

2.8. GAZTELANIATIK MAILEGUAK

Badaude hainbat hitz gaztelaniatik etorri direnak. Atzizki femeninoarekin hartu dira, aldaketarik egin gabe: haien artean adjektiboak eta lanbideen izenak daude. Gehienak ahozko maila informalean erabiltzen dira batez ere.

tipa (mask.: tipoa)*, nobia* (mask.: nobioa)

nerbiosa, kapritxosa, goapa edo *guapa, lista, tonta, txata, rubia, maja, baliosa, alta, sinpatika, txotxola, potola, bollera…*

dekana, notaria, tutora, presidenta, kontsultora, filosofa, antropologa...

Aipatu behar da lanbide izen batzuek, Euskaltzaindiak ezarri dituen bezala ("notarioa", "presidentea", "antropologoa", "filosofoa", "filologoa"...), gaztelaniako hitzen forma berbera dutela, gaztelaniaren genero maskulinoaren –o atzizkia eta guzti: "filosof**o**a" ezarri da eta ez **filosofialaria;* "filolog**o**a" eta ez **filologialaria*, kasu... Horrek azaldu ahal du kaleko erabileran zergatik emakumeei erreferentzia egiteko "era femeninoagoa" –erdararen tankerakoan– bilatzen den, itxura maskulinoa duten formak baztertuz. Ez dugu ahaztu behar euskaldunak elebidunak garela eta horrek eragina daukala gure sen linguistikoan: gaztelaniaz edo frantsesez maskulinoa dena generorik gabekotzat euskaraz hartzeak zailtasunak ekartzen ditu, dirudienez.

Maila informalagoko maileguekin antzeko gertatzen da: "tipoa" gizonarentzat erabiltzen da eta "tipa" emakumearentzat; "nobioa" eta "nobia"; "listo" eta "lista"…

"Txotxola", "potola" eta "pottola", berriz, gaztelaniatik pasatako euskal hitzak dira, gaztelaniatik hartutako femeninoaren –a atzizkiarekin.

Erdaratik *-ero/-era* atzizkiak ere erabiltzen dira euskaraz maila informalean:

neska gezurtera, mutil gezurteroa

2.9. "ANAIA" HITZAREN ERATORRIEN ERABILPENA

"Anaia" hitzak errealitate maskulinoari egiten dio erreferentzia. Baina hitzaren eratorri batzuk zentzu generikoan erabiltzen dira. Hona hemen *Euskal hiztegia*-ren adibide batzuk:

Anaitasun. Edozein arrazoirengatik familia batekoak sentitzen direnak batzen dituen lotura. [*Adibideak*].

Anaiarte. Anaitasun loturaren batek biltzen dituenen elkartea. Ikus **anaidi**; **haurridetasuna**.

Anaikide. 1. Anaiarte edo anaidi bateko kidea. [*Adibideak*].

Anaikor. Anaitasunezkoa, anaitarra. [*Adibideak*].

Hitz horien aurrean beste posibilitate batzuk sujeritu dira:

Senidetasuna, adiskidetasuna, haurridetasuna (azken hau Iparraldean erabiltzen da batez ere)

Elkartea

Kidea eta *elkarte kidea*

Senide osagarria, *anaikor* eta *anaitar* ordezkatzeko (*senide sentimendua*, *senide joaera*...)

Adibidea:

Kristautasunak ***anaitasuna****, muturrak adiskidetzea eta arerioa maitatzeko aukera ditu onak*

Egokia:

> *Kristautasunak **adiskidetasuna** / **senidetasuna** / **haurridetasuna**, muturrak adiskidetzea eta arerioa maitatzeko aukera ditu onak*

Aukera horiekin galdera batzuk agertzen zaizkigu: "neba-arrebatasuna" asmatu ahal dugu edo artifizialegia geratuko litzateke? "Haurridetasuna" ez da arrotza gertatzen hiztun askorentzat? "Adiskidetasuna" edo "senidetasuna" aukerak "anaitasunaren" erabateko baliokideak dira? Hitz horiek ez dute oraindik biderik egin zentzu horiekin, baina horrela erabiltzen badira, haien adiera zabaldu ahal izango dute.

Antzeko galderak etortzen zaizkigu beste hitzekin: "elkartea" eta "anaiartea" berdin-berdinak dira? Eta "senide" eta "anaikor" ere bai? Hainbat testuingurutan bai, beste batzuetan agian ez horrenbeste (zer pentsatuko du horretaz anaiarte baten anaikideak?). Hemen ere gauza bera esan behar da: erabileraren ondorioz, haien adierak zabaldu ahal izango dituzte.

2.10. GENERORIK GABEKO IZENAK

Esan dugu jada euskaran substantibo gehienek ez daukatela generorik; salbuespenak zerrendatu ditugu gorago. Hala ere, geure buruari hauxe galdetu ahal diogu: generorik gabeko substantiboak entzutean edo irakurtzean, nortaz hitz egiten den jakin gabe, zer irudi etortzen zaigu gogora, emakume bat edo gizon bat? Bi lerro hauek irakur ditzagun:

> *erizaina, idazkaria, jostuna, haur-zaina, telefonista, sare-konpontzailea, garbitzailea, emagina...*

> *suhiltzailea, iturgina, zurgina, igeltseroa, urpekaria, ugazaba, artzaina, abeltzaina...*

Zer irudikatu dugu hitz horiek irakurtzean? Hitzok, noski, ez dute adierazten zein den pertsonaren generoa, baina gerta daiteke guk geuk mentalki generoa jartzea.

Generoa adierazi nahi badugu, zehaztu beharko dugu:

> *andre edo emakume euskaltzainak, jaun edo gizon euskaltzainak; andre edo emakume zuzendariak, gizon edo jaun zuzendariak; neska urpekariak, mutil urpekariak…*

García Meseguer-ek (1988: 135) asmakizun bat proposatu zuen maskulino generiko baten atzean zein zaila den gaztelaniaz emakume bat irudikatzea adierazteko asmoz. Asmakizun hori

klasiko bihurtu da eta helburu horrekin erabiltzen jarraitzen da. Kontua da euskaraz ere asmakizun moduan funtzionatu ahal duela, nahiz eta euskaran maskulino generikorik ez egon:

> Aita bat bere semearekin motorrez doa. Motorrari istripua gertatzen zaio eta aita bertan hil egiten da. Semea larri zaurituta geratzen da. Anbulantzia batek ospitale hurbilenera eramaten du eta han denak hasten dira zirujaua bilatzen. Zirujauak oihu egiten du gaztea ikustean: "Ezin diot ebakuntzarik egin, nire semea da".

Asmakizunak balio dezake ikusteko zenbat lagun berehalaxe konturatzen diren zirujaua emakumea dela, gaztearen ama alegia.

2.11. PREMIAZKOAK EZ DIREN ESTRATEGIAK

Genero gramatikala daukaten hizkuntzek hainbat estrategia erabiltzen dituzte maskulino generikoa saihesteko. Zuzentasunaren bila, euskal hiztun batzuek ere estrategia horiek baliatzen dituzte, baina euskaraz ez dira beharrezkoak maskulino generikorik ez dagoelako. Azter dezagun ondoko esaldia:

> **Programa **populazio erretzailearentzat** eginda dago*

Gaztelaniaren kalkoa da. "Los fumadores" maskulino generikoa saihesteko, "la población fumadora" erabiltzen da:

> *El programa es para **los fumadores** > El programa es para **la población fumadora***

Egokia:

> *Programa **erretzaileentzat** eginda dago*

Beste adibide bat:

> **Bostgarren mailako irakasleriak txango bat prestatu du datorren larunbaterako*

Gaztelaniaren kalkoa da. "Los profesores" maskulino generikoa saihesteko, "el profesorado" erabiltzen da:

> ***Los profesores** de quinto han preparado una excursión para el próximo sábado > **El profesorado** de quinto han preparado una excursión para el próximo sábado*

Egokia:

*Bostgarren mailako **irakasleek / maisu-maistrek** txango bat prestatu dute datorren larunbaterako*

2.12. ASIMETRIA LEXIKOAN

Hitz "baliokide" batzuek ez dute esanahi berbera, edo ñabarduna desberdinak dauzkate emakumeei eta gizonei aplikatzen zaizkienean. Emakumeei dagozkienez, oro har, esanahi mugatuagoa edo konnotazio peioratiboagoak dauzkate.

Agurea eta **atsoa**, kasu, ez dira erabat berdinak: bigarrenak zentzu gutxiesgarriagoa dauka (handiagoa edo txikiagoa tokiaren arabera). Egia da hainbat hiztunek sentitzen dutela **agure** hitzak ere konnotazio hori badaukala, baina **atsoa** hitzarena handiagoa da. *Euskal hiztegia*-k horrela jasotzen ditu terminook:

> **Agure**. Adineko gizona. […]
>
> **Atsoa**. Emakume zaharra. *(Gehienetan gutxiespenezko zentzua du gaur).*

Bai "atsoa" (edo "atxoa") bai "agurea" erabiltzen dira zenbait tokitan lagunarteko giroan emazteari edo senarrari informalki erreferentzia egiteko. "Atsoa" (edo "atxoa"), gainera, emakume gazte bat izendatzeko modu baldarra da toki batzuetan: *A ze nolako atsoa harrapatu duen Manuelek* (*Elhuyar hiztegia*-ren adibidea da).

"Alua" eta "zakila" ere ez dira erabat baliokideak: zentzu zuzenean erabiltzeaz gain, biak erabil daitezke irain moduan. "Zakilaren" ordaina 'tontua, mozoloa, baboa…" da; "alua" esangura zehatzik gabeko iraina da. "Alua" iraina, baina, askoz gehiago erabiltzen da "zakila" baino; izan ere, hiztegi guziek jasotzen dute "aluaren" zentzu iraingarria, "zakilarekin" gertatzen ez den bezala.

Begiratu ditzagun orain "potro" eta "barrabilak" hitzak, *Euskal hiztegia*-n agertzen diren bezala:

> **Potro**. *(Hitz arrunta).* Barrabila. *Horiek dituk potroak!*: Hori duk ausartia! // *Potro jorran (erabilera arrunta):* ezer egin gabe.
>
> **Barrabil.** […]. **Barrabilak izan / eduki** (*erabilera arrunta*). 1. Atreverse, tener cojones. 2. Tener cara.

“Potro” eta “barrabilak” hitzen erabilpen horiek ez daukate femeninorako baliokiderik (“obarioak edukitzea” ere entzuten da: *Neska horrek obarioak dauzka!* Baina esapidea duela gutxikoa da eta ez dago horren zabalduta).

Ikus dezagun orain “bulartsu” hitza. Terminoak ‘ausarta’ esanahia dauka. Baina badirudi beste modu batean ulertzen dela emakume bati aplikatzekotan. Ikus dezagun *Euskal hiztegia*-k hitzari ematen dion esanahia eta ilustratzeko adibideak:

> **Bulartsu**: 1. Kementsua, adoretsua, ausarta. Ikusi **bulardetsu**. *Asaba bulartsuek irabazitako gudu handiak. Gizon bortitz eta bulartsua. Gerrarako grinatua eta bulartsua zen. Gizon bulartsuenaren indarrak eta gogoak makaltzeko. Bihotz bulartsua.* (Adizlagun giza) *Gogor eta bulartsu jardun*. 2. Emakumeez mintzatuz, bular-harroa, bular handiak dituena. *Gaztetatik bulartsua zen, bere ama bezala.*

Asimetria argi dago: hitzak esanahi ezberdina dauka pertsonaren generoaren arabera eta emakumeari dagokionak zentzu murritzagoa eta balio txikiagoa dauka.

Aipatzekoa da, halaber, “itxurazko bikote” bat:

> **Gizalege**. Gizartean bizitzeak ezartzen dituen jokabide arauen begirunea. Ikus. **gizabide, jendetasun**. […]
>
> **Emalege**. *(Gutxi erabiltzen den hitza).* Emakumearen hileroko odolaldia. Ikus hileko. *Emalege-minak.*

Nabarmena da aldea termino horien artean. Aipatuko dugu, azkenik, zer pentsatua ematen digun termino bat:

> **Emetasun**: 1. *Batez ere Iparraldean.* Emea edo eztia denaren nolakotasuna, leuntasuna, amultsutasuna. *Irainak emetasunez pairatzeko*. 2. Emakumeari dagozkion tasunen multzoa. Ikus. emakumetasun.

Elhuyar hiztegia–k antzeko moduan jasotzen du hitza, baina ez du 1. adiera Iparraldera mugatzen; beraz, orokor moduan aurkezten du.

Hitzaren azalpena ikusita, geure buruari galdetzen diogu zer lotura ote dagoen “emetasun” terminoaren bi esanahien artean, ea eztia edo leuna eta emakumeen tasunak hiztunon irudimenean ere lotuta ote dauden. Loturarik dago, halaber, honako hitz hauekin: “emeki”, “emaro”, “emagarri”, “ematu”, “ematzaile”…?

Hurrengo bi ataletan beste bi asimetria aztertuko ditugu: “andereñoa” eta “gizona”.

2.13. "ANDEREÑOA"

Ikus dezagun hitzaren esanahia:

> **Andereño**. 1. Emakume ezkongabea. (*Batez ere titulu gisa erabiltzen da, deituraren ondoan*). Ikus **andre**. *Urrutia andereñoaren lan bat.* 2. Ikastoletako maistra. *Irakasleak eta andereñoak.*

Euskaraz ez dago tratamendu berezi bat "gizon ezkongabearentzat". Urrutia, gizon bat baldin bada, beti izango da "Urrutia jauna", ezkonduta egon ala ez. Emakumeek ere ez dute tratamendu berezi hori behar. Gaur egun pertsonen egoera zibila ez da, berez, uneoro jakin beharreko informazioa; ez da informazio pertinentea.

Ondorioz, tratamendu bakarra aldarrikatu behar dugu hemen: "andrea" emakume guztientzako, baita emakume gazteentzat ere ("jaunaren" baliokidea da): errespetua adierazten du eta ez pertsona ezkonduta edo ezkongabe dagoen.

Eta bigarren adiera? Egokia al da "andereñoa" erabiltzea "maistraren" sinonimoaren moduan? "Andereño" hitza garai bateko errealitatearen isla da, zeinetan lanbide hori batez ere emakume gazte ezkongabeek egiten baitzuten. Gaur aplikatzen zaie maistrei orokorrean, berdin haien adina eta egoera zibila. Kasu honetan "giz"- erroarekin aurkezten zitzaigun dilemaren aurrean gaude: hitzaren iragana izango dugu kontuan (eta hitza baztertu) edo egungo erabilera soilik izango dugu kontuan (eta hitza erabiltzen jarraitu)? Hitzaren erabilera oso zabalduta dago eta ez dirudi erabilerak hiztunei gatazkarik sortzen dienik.

(Ohar gaitezen, bestalde, *Euskal hiztegia*-n agertzen den 2. adieraren adibidean jauzi semantiko bat gertatzen dela: "irakasleak eta andereñoak". Fenomeno hori aurrerago azalduko dugu).

2.14. "GIZONA" ETA "GIZON PORTATU"

Euskal hiztegia-k adiera hau ere jasotzen du "gizon" hitzaren azalpenean:

> Gizona, adorearen, ausardiaren eta dagozkion gainerako tasunen jabetzat hartua. *Etor hona, gizona bazara!*

Terminoa, beraz, bertute multzo baten moduan ulertu da, eta batez ere adorea eta ausardia barneratzen ditu. "Emakume" hitzari ez zaio, berriz, esanahi hori eman. Hiztegiak "gizona" ilustratzeko jarritako adibidea esanguratsua da:

*Etorri hona, **gizona** bazara*

Guk adierazteko beste modu bat proposatu behar dugu:

*Etorri hona, **ausarta** bazara*

Aukera honek "gizon" eta "ausardiaren" ekibalentzia automatikoa baztertzen du eta, gainera, emakume bati ere erreferentzia egitea ahalbidetzen du.

Hemen aipatu behar dugu, halaber, "gizon portatu" esapidearen erabilpena norbaiten jokamolde egokia adierazteko:

Manuel A. etxegilea **gizon portatu zaigu eta bi urte barru egundoko leku handi eta ederraren jabe izango gara*

Egokia:

*Manuel A. etxegilea **behar bezala** / **ederto** / **ezin hobeto** /... **portatu** zaigu eta bi urte barru egundoko leku handi eta ederraren jabe izango gera*

Adibidea:

Taldeko euskaldunek ez zuten berarekin grabatu nahi izan, baina Andrewk laguntza eskaini zion. **Gizon portatu zen, bai, Andrew*

Egokia:

*Taldeko euskaldunek ez zuten berarekin grabatu nahi izan, baina Andrewk laguntza eskaini zion. **Primeran** / **ederto** /... **portatu** zen, bai, Andrew*

2.15. "NESKA" ETA "EMAKUME" IRAIN MODUAN

Ikusi berri dugu "gizona" terminoak esanahi positiboa daukala; "neska" eta "emakume" terminoak, berriz, irangarriak izan daitezke. Hitz horiek, irain moduan, gizonei eta mutikoei zuzentzen zaizkie. Kalean erabiltzeaz gain, umeentzako pelikuletan, marrazki bizidunean... maiz entzuten dira zentzu horiekin. Emakumeen edo nesken inguruko estereotipoekin lotuta daude: neskak eta emakumeak dira berritsuak, pinpirinak, txepelak, tuntunak...

Aizu, neska txotxolo baten moduan jokatzen ari zara!

Emakume negarti bat dirudizu!

Ez daukazue potrorik, ala? Zer zarete zuek, neska batzuk?

Neskaaaatxa, neskaaaaatxa!

Beti txutxumutxuka, emakumeak bezala!

Atso kalakariak zarete benetan!

Argi dago substantibo horiek irain moduan erabiltzeak emakumeen gutxiespena eta estereotipoak zabaltzen dituztela.

2.16. EMAKUMEEKIN LOTUTA ERABILTZEN DIREN HITZ BATZUK

Hainbat hitz askoz gehiago erabiltzen dira emakumeak kalifikatzeko gizonak kalifikatzeko baino: txolina, pinpirina, panpoxa, kaskarina, pertxenta… Hona hemen adibide batzuk *Euskal hiztegia*-n eta *Elhuyar hiztegia*-n agertzen diren bezala (bietan ematen diren adibide gehienetan emakumek agertzen dira):

Txolin. 1. Kaxkarina; ergela. 2. Hitzontzia. 3. Edanean apur bat igaroa.

Txolin. 1. Hablador, -a, charlatán, -ana, parlanchín, -ina.. 2. (*Batez ere emakumeei buruz*). Ligera de cascos, casquivana, vanidosa. Emakume txolina omen da: se dice es una mujer casquivana 3. (Edanean apur bat igaroa). Alegre.

Txatxala. (*Bizkaiera*). Mujer casquivana. Mujer de poco juicio, mujer inocente / alelada / lela / zopenca / embobada.

Baldraska. Emakumeez mintzatuz, baldresa. *Emazte baldraska.*

Baldraska. (Bizkaiera). Mujer desarrapada, desastrada.

Matraka. [...]. 4. Revoltosa, caracoleta. *Hauxe neska matraka!*: ¡qué niña más revoltosa!

Pinpirin. […] 3. Pertxenta. *Neskatxa gazte pinpirina da Garazi Errekaldekoa.*

Pinpirin. 1. (*Iparraldeko adiera*). Elegante, lindo, -a, acicalado, -a. *Neskatxa gazte pinpirina*: muchacha acicalada. [...].

Kaskarin. *(Hizkuntza maila behekoa).* Buruarina. Ikus **kaxkarin**. *Dosnostiar kaskarinak. Kaskarinak beti kaskarin.*

Kaxkarin. *Kaskarin*-en aldaera adierazkorra. *Gaztetan, neska kaxkarinen atzetik burua gehiegixko berotua.*

Kaskarin. *(Lagunarteko hizkerakoa).* Ligero de cascos, casquivano, -a; vanidoso, -a, presumido, -a. *Donostiarrak kaskarinak dira*: los naturales de Donostia son casquivanos.

Pertxenta. Liraina, zalua, txairoa. Ikus **poxpolin** 2. *Neskatilatxo gazte dotore pertxenta bat heldu zan, apainkiro jantzia eta orraztua. Pago bakarti bati neskato pertxentaren tankera hartu nion.*

Pertxenta. Esbelto, -a, elegante, fino, -a, airoso, -a, dispuesto, -a. *Neskato pertxentaren tankera hartu nion*: me pareció que era una chica elegante.

Pertxenta. 1. Airoso/sa, esbelto/sa, garboso/sa. 2. marisabidilla. (*3000 hiztegia-n*).

Poxpolin. Pertxenta, liraina, zalua, txairoa. *Elizondoko neska poxpolinak.*

Poxpolin. 1. Esbelto, -a, airoso, -a; elegante; fino, -a.

Panpox. Polita, ederki apaindua. *Usotxo panpox kuttuna. Zure aurpegi panpoxa. Zineman egunoro ikusten ditugun neskatxa panpox eta gazte beldurgabeak.* [...].

Panpoxa. Emakumezkoez mintzatuz, panpoxa. *Orain ehun urte andereño panpoxak ziren gure amonatxo haiek.*

Panpox. Bonito, -a, elegante; de punta en blanco. *Zinemako neskatxa panpox horiek:* esas elegantes chicas del cine. *Zure aurpegi panpox eta alaia*: tu bonita y alegre cara.

Panpoxa. (*Hego Euskal Herriko hitza*). Bonita, elegante; de punta en blanco. *Amona panpoxa bat etorri zen*: vino una abuela muy peripuesta.

(*Elhuyar hiztegia*-k "panpoxo" ere jasotzen du: 'bonito, elegante, lindo; de punta en blanco'. Adibidea hau da: Tiburtzio panpoxo-panpoxo etorri zen atzerritik).

Ikusten dugunez, hitz hauetako batzuk erabiltzen dira soilik emakumeekin ("txatxala", "panpoxa", "baldraska"...). Beste batzuk, berriz, emakume eta gizonekin erabil daitezke, baina gehienetan emakumeei aplikatzen zaizkie. Izan ere, lehen esan bezala, hiztegietan agertzen diren adibide gehienak emakumeekin daude ilustratuta. Erreparatu, bestalde, ikusitako hitz gehienen esanahia honako alderdi hauekin dagoela lotuta: alde batetik, berritsua eta txoriburua izatearekin eta, beste aldetik, itxura atseginarekin eta itxurarekiko gehiegizko ardurarekin. Topiko horiek emakumeei buruz ezagunak dira gurean eta hainbat gizartetan. Zerrendatutako bi hitz, berriz, janzkera traketsarekin eta jokaera bihurria izatearekin lotzen dira.

Euskalkietan eta tokietako hizkeretan adibide gehiago aurkitu ahal ditugu; hemen ohikoenetako batzuk baino ez ditugu jarri.

Esan dezakegu, azkenik, beste hitz batzuk modu nahiko asimetrikoan erabiltzen ditugula. Zein generori aplikatzen dizkiogu honako hitz hauek maiztasun handiagoz: *polita, liraina, apala, liluragarria, delikatua, sentibera…? Zein generori sendoa, indartsua, ausarta, bortitza…?*

2.17. "MARI"-OSAGAIA

Orrialde hauetan zehar bilatzen ari gara non agertzen den generoa euskaran eta nola adierazten den. Erreparatu diezaiogun "mari"- osagaiari. Hainbat hitz elkartu osatzeko erabiltzen da eta ez dauka baliokide maskulinorik. *Euskal hiztegia*-k hainbat adibide eskaintzen ditu bere azalpenean:

> **Mari**. Zenbait izenondoren, edo *mutil, maisu...* –ren aurrean ezarririk, emakumezkoei erdeinuz izendatzeko elkarketak osatzeko erabiltzen den hitza. **Mari-purtzil**. Emakume purtzila; emagaldua. **Mari-zirtzil**. Emakume zirtzila, lohia; emagaldua. Mari-zirtzilen besoetan ezti-ezti. **Mari-apain**. Bere burua edertzat eta dotoretzat duen emakumea. **Mari-matraka**. Emakume kalapitaria. **Mari-gizon**. Gizon itxura duen emakumea. Neska mardula zen, betizua, *mari-gizon samarra, bibote batzuk ere baitzituen*. **Mari-maistra**. Agintzeko joera duen emakumea. *Mari-maistra ederra eginda hago hi!* **Mari-maisu**. Bere burua jakintsutzat hartzen duen emakumea. **Mari-motrailu**. Mari-mutila; neska lodikotea. **Mari-mutiko**. (*Batez ere iparraldeko hitza*). Mari-mutila. **Mari-mutil**. Mutilen itxura eta keinuak dituen emakumezkoa. *Eta zu, berritsu mari-mutila. Neskato mari-mutila. Beti mutilekin dabilen neska mari-mutil bihurtu ohi da.*

2.18. JAUZI SEMANTIKOA

Zertan datza fenomeno hori? Termino bat erabiltzen da generikoa (emakume eta gizonentzako) dela ulertaraziz, eta gero, momentu jakin batean, aditzera ematen da termino hori ez zela benetan orokorra, baizik eta maskulinoa soilik. Alegia, orokorretik espezifikora pasatzen da abisurik gabe eta solaskidea konturatzen da orduan testuaren igorleak lehengo izena maskulino moduan ulertu zuela. Esan dezagun, gainera, jauzi semantikoa egiten duten hiztunen artean, ia denak gizonak direla, eta ez bakarrik jarrera kontserbadorea daukaten gizonak, baizik eta baita ere bere burua progresistatzat jotzen dutenak. Fenomenoa beste hizkuntzetan ere gertatzen da. Ikus ditzagun adibide batzuk (azken adibidea mikroipuin bat da eta osorik transkribatu dugu).

Adibidea:

__Gazteen__ aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, __neskekin__ ligatzen saiatu…

Egokia:

__Gazteen__ aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, __beste gazte batzuekin__ ligatzen saiatu…

Adibidea:

Adin baterako __nork__ ez daki gutxi gora-behera zer den garrantzitsua bizitzan?: ondo moldatzea lau lagunekin, ondo konpontzea __emaztearekin__, gaizki ez konpontzea lanbidearekin…

Egokia:

Adin baterako __nork__ ez daki gutxi gora-behera zer den garrantzitsua bizitzan?: ondo moldatzea lau lagunekin, ondo konpontzea __ezkontidearekin__ / __bikotekidearekin__, gaizki ez konpontzea lanbidearekin…

Adibidea:

Gelako __haurrek__ ere portaera hori daukate askotan __neskekiko__

Egokia:

Gelako __mutilek__ ere portaera hori daukate askotan __neskekiko__

Adibidea:

__irakasleak__ eta __andereñoak__

Egokia:

__maisuak__ eta andereñoak /
__irakasleak__

Adibidea:

"Beste lurraldetako ohiturak" mikroipuina

*Aloba tribuko **indioak** itsuak dira, salbuespenik gabe, baino oso lagunkoi eta abegikorrak. **Bere** etxera gonbidatzen zaituztenean **beren anderea** eskaintzen dizuete eta, gainera, eurek atontzen dizute ohea. Baina zera: anderea gustatzen ez bazaizu, eta onartzen ez baduzu, berehala ebakiko dizute zintzurra, gaizki zorrozturiko sukarri batez.* (Pere Calders-en ipuina, *Hamahiru ate*, Donostia, Elkar, 1985; Sarrionaindiak eta Sarasketak *itzulia*).

Egokia:

"Beste lurraldetako ohiturak"

*Aloba tribuko **indioak** itsuak dira, salbuespenik gabe, baino oso lagunkoi eta abegikorrak. **Gizonek bere** etxera gonbidatzen zaituztenean, **beren anderea** eskaintzen dizuete eta, gainera, eurek atontzen dizute ohea. Baina zera: anderea gustatzen ez bazaizu, eta onartzen ez baduzu, berehala ebakiko dizute zintzurra, gaizki zorrozturiko sukarri batez.*

Testu literario honen edukian (gizonek emazteak sexurako opari moduan tratatzean) ez gara orain sartuko. Badirudi, gainera, testuaren narratzaileak bere hartzailea gizon heterosexual moduan ulertzen duela ("gonbidatzen zaituztenean", "andrea gustatzen ez bazaizu"...).

2.19. ANDROZENTRISMOA

Esaldi batzuetan ikuspegi androzentrikoa islatzen da; bertan ulertzen da gizona munduaren ardatza eta neurria dela. Izan ere, batzuetan badirudi mundua gizonek bakarrik osatzen dutela:

*Frantziako iraultzaren ondorioz **sufragio unibertsala** ezarri zen*

***Atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten ordezkoak*

Lehenengo bi adibideak antzekoak dira: ez dute kontuan hartzen emakumeak ere gizakiak edo pertsonak direla. Esaldiok ez dute, beraz, egia osoa jasotzen: emakumeek ez zituzten eskubide horiek.

Egokia:

*Frantziar iraultzaren ondorioz **gizon guztientzako sufragioa** ezarri zen*

Gizon atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten ordezkoak, **horiek ere gizonak

Emakumeak ezkutatzeaz gain, maila baxuko gizonak ere ezkutatuta geratzen dira bi esaldietan: hor aipatutako eskubideak ez zituzten gozatzen gizarte horietako gizon guztiek, baizik eta gizon askeek (esklaboek ezin baitzuten bozkatu, ez kasu batean, ezta bestean ere).

Androzentrismoa errotuta dago gure irudimenean. Ariketa bat egin dezakegu hurrengo esaldiak erabiliz (agian beste pertsona batekin, lerro hauek irakurtzen ari ez dena, zeren gure irakurlea "gaiztotuta" egongo da jada). Esaldiak irakurri ondoren, galdera hau egin ahal dugu: lerro hauetan zehar zein pertsona irudikatzen dugu, emakumea ala gizona?

Adibidea:

> J. Etxezarretak hitzaldi bat eskaini zuen pasa den larunbatean Europako nazioetan sortzen diren ekonomia premiei buruz. (Errazu Colás 1995: 73. Egokitua).

Adibidea:

> Etxera hurbiltzen zen euripean. Atarira helduta, poltsikotik giltza atera zuenean, zakurra bere zapaten gainera igo zen, zaunka. "Eseri hor, zakur madarikatua, obeditu!", esan zion zakurrari indarrez. (García Meseguer 1988: 146. Egokitua).

Lagun askok esango digute, zintzo jokatuz gero, gizona irudikatu dutela. Esaldiek, baina, ez dute hori esaten.

2.20. ASIMETRIA MEZUETAN

Etengabe gertatzen da mezuetan asimetria; gizartea erabat bustitzen duen ikuspegi sexistaren ondorioa da. Generoei egozten zaizkien rolen eta ezaugarrien bereizketa presente dago uneoro. Zer adierazten dute mezuek? Emakumeak lotzen dira estetikarekin eta izaera pasiboarekin, etxea eta familiaren zaintzarekin. Gizonei adimena eta indarra dagozkie, kalea eta mundu publikoa. Jarduerekin lotzen dira batez ere gizonak.

Asimetria hori da, ziur aski, sexismoaren adierazpen nagusia hizkuntza guztietan eta baita euskaran ere: baina fenomenoaren gakoa ez dago hizkuntzan, hiztunen errepresentazio mentaletan baino. Alegia, gakoa mezuen edukia bera da eta ez hizkuntza; hizkuntza ikuspegi hori islatzeko modua besterik ez da.

Milaka adibide jarri ahal ditugu; izan ere, gure testuaren atalik luzeena izan daiteke hau. Baina nahikoa izango da esaldi batzuk aukeratzea irakurleak fenomenoa zertan datzan ikusteko.

Adibidea:

> *Angelina Jolie-k,* ***beti bezain eder eta elegante****, eta Robert de Niro errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian*

Egokia:

> *Angelina Jolie eta Robert de Niro aktore* ***errekonozituek*** *sari bana jaso zituzten ekitaldian*

Ikusten dugunez, adjetibazioarekin adierazten da ezaugarrien banaketa. Baina asimetria mezuetan beste hainbat modutan ager daiteke. Hona hemen albiste baten izenburua boleibol partida bati buruz:

> ***Gorputz ederrak*** *hondartzan*

Orzaizen hitzetan (2004), "gizonen arteko partida izan balitz, berriak jokoari buruzko titularra izango luke, baina jokalariak emakumeak zirenez, kazetariak gorputzen edertasunari buruz hitz egitea erabaki zuen".

Argazki baten oinean, berriz, honako esaldi hau irakur daiteke:

> *Jendetza bildu zen inaugurazioan. Emakumeak,* ***dotore jantzita*** *[…]*

Ez dago esaldi horiek birformulatzerik; beste batzuk sortu beharko genituzke.

Umeen sozializazioan ere asimetria hau gertatzen da maiz. Haiei zuzendutako mezuetan ere ezaugarrien banaketa eten gabe hautematen da:

> *Berokia zikindu zaizu; lasai,* ***amak garbituko*** *dizu*

> *Txirringa ez dabil ondo; ea* ***aitak*** *laguntzen dizun* ***konpontzen***

Baliteke benetan horrela izatea, alegia, ume horren ama dela arropa garbitzen duena eta aita txirringa konpontzen duena, baina printzipioz egokiena izango litzateke bi kasuetan esatea:

> ***etxean*** */* ***aitak edo amak*** */* ***gurasoek*** */* ***senideek*** *garbituko / konponduko dizute*

Erreparatu diezaiogun, bestalde, nola hitz egiten diegun neskei eta mutilei; zein hitz aukeratzen ditugun izendatzeko eta zein errealitaterekin lotzen ditugun. Ba al dago dudarik neska batek askoz gehiagotan entzungo duela lehenengo adibidea eta mutil batek, berriz, bigarrena?

> Etorri hona, eder hori! Eman patxo bat, maitea! A ze nolako zapata politak ekarri dituzun! Loretxo bat dirudizu
>
> Etorri hona, tigre! Eman bostekoa, motel! Zapata sendoak ekarri dituzu gero, ostikada ederrak emateko modukoak, e?

Bi paragrafoen intonazioa irudikatzen badugu, konturatuko gara horretan ere zein desberdinak diren mezuak. Komentario honekin ez dugu proposatu nahi neskei lehenengo moduko esaldirik ez esateko, baizik eta hausnarketa egiteko gure hitz egiteko moduaz eta neskekin eta mutilekin erabiltzen ditugun mezuez. Horren ondorioz, agian, aldaketa batzuk egiten saiatuko gara: batzuetan neskekin hitz egingo dugu mutilekin orain arte egin dugun bezala; batzuetan mutilekin hitz egingo dugu orain arte neskekin egin dugun bezala.

2.21. ATSOTITZAK EDO ESAERA ZAHARRAK

Mezuetan gertatzen den asimetriaren adibide garbia atsotitzak dira. Atsotitzen edo esaera zaharren misoginia jakina da hala euskaran nola beste hizkuntzetan; herriaren jakinduria jasotzen omen duen genero horri begiratu bat besterik ez zaio eman behar. Euskaran ere gainbeheran doan generoa da; gero eta gutxiago erabiltzen dira esaera zaharrak gure gizartean.

Atsotitz gutxi batzuk ekarri ditugu hona adibide moduan. Aristiren liburutik (2002) hartu ditugu, lehenengo ataletik hain zuzen (a-rekin hasten direnak daude jasota atal horretan).

> "Ahuntza, atsoa eta emakumea, teman ez ditu inork irabaziko"
>
> "Ahuntzak jaten den mahastia eta andreak agintzen duen etxea, antzeko"
>
> "Alaba baino, semea hobe"
>
> "Alaba bakarra, etxean gerra"

Argi dago esaldi horiek eta antzekoek ez daukatela konponbiderik; ez dago birformulatzerik. Haien eduki misoginoa erabat desegokia eta iraingarria da.

2.22. EMAKUMEEN AIPAMEN ASIMETRIKOAK

Emakumek hainbatetan aipatzea dira gizonekin duten harremanaren arabera: emazteak, andregaiak, alabak, idazkariak...

*Hegazkinean **bi andaluziar eta bere emazteak** ezagutu genituen*

Egokia:

*Hegazkinean **bi bikote andaluziar** / **lau lagun** / **lau bidaiari andaluziar** ezagutu genituen*

Adibidea:

*Erakusketan Rodinen bi eskultura eta **bere maitalea Camille Claudelen** eskultura bat ikusi ahal izango dira*

Egokia:

*Erakusketan Rodinen bi eskultura eta **Camille Claudelen** eskultura bat ikusi ahal izango dira. **[Bi eskultoreak maitaleak izan ziren]***

Beste fenomeno bat honako hau da. Gizonak izendatzeko "gizon" eta "jauna" hitzak erabiltzen dira eta horien ondoan "neska" hitza erabiltzen da emakumeak izendatzeko edo, besterik gabe, haien ponte izena (txikigarria eta guzti). Trataera horren bidez emakumeak adingabeak diren irudia transmititzen da:

Adibide batzuk:

*Garmendia jaunak eta **Estitxuk** aurkeztu dute txostena → Garmendia jaunak eta **Díaz de Alda andreak** aurkeztu dute txostena*

*Sarkozy eta **Angela** bildu dira gaur goizean → Sarkozy eta **Merkel** bildu dira gaur goizean*

*Bi gizonek eta hiru **neskek** osatzen zuten taldea → Bi gizonek eta hiru **emakumek** osatzen zuten taldea*

Adibide sotilago bat:

*Gabriel García Márquez eta Isabel Allende idazle hegoamerikar salduenen artean daude. García Márquezen ia obra guztiak dauzkagu eskura. **Isabelen** azkeneko nobelak eskatu nahi ditugu lehenbailehen*

Egokia:

> *Gabriel García Márquez eta Isabel Allende idazle hegoamerikar salduenen artean daude. García Márquezen ia obra guztiak dauzkagu eskura.* ***Allenderen*** *azkeneko nobelak eskatu nahi ditugu lehenbailehen*

Eta azkena:

> *Egun on denoi eta ongi etorri kongresu honetara.* ***Josu Agirre alkate jaunak*** *hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren* ***Mirenek eta Nekanek*** *ekitaldiaren programa azalduko digute*

Egokia:

> *Egun on denoi eta ongi etorri kongresu honetara.* ***Josu Agirre alkate [jaun]ak*** *hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren* ***Miren Linazasoro fakultate honetako dekanoak eta Nekane Gorostiza bertako ikerketa zuzendariak*** *ekitaldiaren programa azalduko digute*

Azkeneko adibidean "jauna" hitza hautazkoa da, baina jartzekotan beste bi pertsonei ere "andrea" tratamendua jarri beharko diegu, simetriaren izenean.

2.23. SIMETRIAREN ARAUA

Mezuen bidez transmititzen den sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago kasu askotan ondo funtzionatzen duena: simetriaren araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplika diezaiogun ea egokia iruditzen zaigun.

Ziur aski desegokia irudituko zaigu:

> *Robert de Niko-k,* ***beti bezain eder eta elegante****, eta Angelina Jolie errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian*

Boleibol partida gizonek jokatu badute, albisteak ez luke izenburu hau izango:

> ***Gorputz ederrak*** *hondartzan*

Argazki baten oinean, ez genuke esaldi hau aurkituko:

> *Jendetza bildu zen inaugurazioan. Gizonak,* ***dotore jantzita*** *[…]*

Halaber, nekez aurkituko genituzke honako esaldi hauek:

Joseluk *eta* ***Díaz de Alda*** *andreak aurkeztu dute txostena*

Nicolas *eta* ***Merkel*** *bildu dira gaur goizean*

Horretaz konturatzea nahikoa izango da emakumeen trataera zuzentzeko.

2.24. LESBIANAK, GAYAK, BISEXUALAK, TRANSEXUALAK ETA *QUEER*-AK: LGBTQ

LGBTQak (edo LGBTQ+; + ikurra hor beste edozein aukera ere barneratzen dela adierazteko jarrita) izendatzeko erabili diren hitzak erdeinuz tindatuta egon dira:

Marisa. (*Hizkuntza mailaz behekoa den hitza*). Maritxua, emagizona. *Ez du gizonak beti eltzeen artean egon behar, marisa eginik.*

Atzelari. [...]. 2. Gizonezkoekin sexu harremanak dituen gizonezkoa.

Emagizon. Gizonezkoez mintzatuz, emakumezkotzat hartu ohi diren molde edo keinuak dituena. Ikus maritxu. *Zalduntxo emagizona.*

Emazte-gizon. 1. (*Behe-nafarrera*). Hombre afeminado. 2. (*Bizkaiera*). Mujer hombruna. [*Elhuyar hiztegian* ***emazte*** sarreran].

Atsogizon. 1. Maricón, marica. 2. Mujer hombruna; marimacho, machota.

Marikoi. (*Hego Euskal Herriko hitza, arrunta*). Maricón.

Maritxu. (*Hizkuntza mailaz behekoa den hitza*). Emakumezkotzat hartu ohi diren eite edo keinuak dituen gizona, emagizona. Ikus **marisa**. Beti neskekin dabilen mutila maritxu bihurtu ohi da.

Marikoikeria. (*Hego Euskal Herriko hitza, arrunta*). Mariconería; mariconada.

Maritxukeria. (*Hitz arrunta*). Mariconada; mariconería.

Gehiago dira gizonei erreferentzia egiteko aurkitu ditugun terminoak emakumeekin lotuta daudenak baino, eta ez preseski errespetuarengatik. Aldameneko hizkuntzetan bezala, LGBTQ emakumeak ikusezinagoak izan dira gizonak baino, eta oraindik badira.

Gaur egun, berriz, honako hitz hauek gero eta gehiago erabiltzen dira, hiztegi guztietan oraindik egon ez arren: “gaya”, “homosexuala”, “lesbiana”, “transexuala” (eta “transgeneroa”), “bisexuala”. Terminook beste hainbat hizkuntzatan erabiltzen dira ia forma berberarekin. “*Queer*” hitza, bestalde, ingelesetik dator eta erabili izan da jatorrian arraro edo ohikoa ez zenari erreferentzia egiteko eta pertsona homosexualak modu gaitzesgarrian izendatzeko. Orain bidea da adierazteko identitatea –sexuala kasu honetan– sailkapenen gainetik dagoela eta etengabe mugitzen edo garatzen den zerbait dela. Irainduak irainaren jabe egin dira eta bere burua izendatzeko erabiltzen dute terminoa. Antzekoa gertatu da zentzu peioratiboa daukaten beste hitz batzuekin –“marikoia”, “bollera” (gaztelaniatik etorria)- ; LGBTQek bereganatu dituzte eta auto izendatzeko baliatzen dituzte. Hainbat pertsonek, baina, oraindik erabiltzen dituzte hitz horiek mesprezuzko kutsuarekin.

Aipagarria da, bestalde, LGBTQ giroetan sortu den hiztegia. Aranak *Gay hiztegia*-n (2005) termino ugari jaso ditu, elkar izendatzeko erabiltzen direnak, batzuk tradizionalagoak eta besteak modernoagoak: “andereska”, “popazalea”, “poperoa”, “joxe-joxepa”, “pikujalea”, “motxinjalea”, “pansexuala”… Umorea, autoironia eta hizkuntzarekin sormenerako gaitasun handia sumatzen dira bertan bildutako hitz eta esapideetan.

2.25. PONTE IZENAK

Zeren arabera dira “Sua”, “Lur”, “Ur”, “Elur” edo “Ilargi” neska edo mutilen izenak?

Izen arruntak (“Ibai”) eta toponimoak (“Ganeta”) ponte izen bihurtzen direnean emakumeen edo gizonen izen bihurtzen dira, generoa hartzen dute. Euskaltzaindiak bere izendegia osatzeko irizpideen azalpenean hauxe irakurtzen dugu:

> Euskarak, oro har, izen batzuk erabiltzen ditu gizonezkoentzat (*Andres, Lukas, Untzalu...*) eta beste batzuk emakumezkoentzat (*Edurne, Helena, Teresa...*). Badira, ordea, tradizioz genero-mozioa izan duten izenen salbuespenak. Horietako gehienak santutegian agertzen dira (*Bizente/Bizenta, Joanes/Joana, Paulo/Paula, Petri/Petra...*) eta, ikus daitekeenez, joera nagusia –a bukaera emakumezkoei ezartzea izan da (*Eneko/Oneka, Otsando/Otsanda...*), K. Mitxelenak aspaldi adierazi zuen bezala.
>
> Hitz arruntetatik eta toponimoetatik hartutako ponte izenen sexu bereizketa, tradizioari segituz egin da, kontuan izanik izen arruntek ez dutela genero gramatikalik. Hori dela eta, printzipioz, kontsonantez eta –i, –o, –u bokalez amaitutakoak (*Haritz, Ibai...*) gizonezkotzat ematen dira, eta –a, –e dutenak berriz (*Ganeta, Iluntze, Loyola...*), emakumezkotzat. Baina tradiziozko printzipio honek baditu bi salbuespen. Batetik, Andre Mariaren santutegiak direlako, emakume izentzat ematen direnak (*Aitziber, Irantzu, Izaskun...*) eta, bestetik, gure

historian gizonezkoak izendatzeko erabili direnak, besteak beste, *Gartzea, Otsoa, Sendoa...* (Gorrotxategi Nieto 2001: 25).

Beste salbuespenak ere badaude. Euskaltzaindiaren izendegian, kasu, "Iraultza" gizonentzako izena da; "Itsaso", "Izar", "Ilargi" emakumeentzako. Zeren arabera aukeratu du tradizioak? Galdera interesgarria izan daiteke ikerlarientzat.

Aipatzekoa da, bestalde, Euskaltzaindiaren zerrenden irizpidea dela "beharrezkoa den sexu bereizketa", izendegiaren sarreran azaltzen den bezala. Izan ere, bi izen zerrenda dago, emakumeentzat eta gizonentzat. Ez da izenik agertzen bi generoen pertsonei jar dakiekeenik. Mikel Gorrotxategi euskaltzainak, Patxi Salaberrirekin batera 2001eko euskal izendegiaren egileak, argudiatzen du izenen sexu bereizketa beharrezkoa dela: euskal izendegia argitaratu aurretik (2001ean) izen batzuk neskak eta mutilak izendatzeko erabiltzen ziren, eta ondorioz nahasmen handia zegoen justizian, irakaskuntzan eta beste hainbat alorretan. "Jendeak pentsatzen du izen arrunten kasuan euskaraz sexu markarik ez dagoenez, sexu markarik gabeko pertsona izenak daudela, eta hori euskarazko sistemaren kontrako ustea da. Euskarazko izenak, ezagutzen ditugun neurrian, beti izan dira neska edo mutil izenak ez dago izen mistorik" (Gorrotxategi: Garcia 2007).

Gehitu behar dugu Espainiako Kode Zibilaren arabera debekatuta daudela "identifikazioari eta sexuari dagokionez nahasmena sor dezaketenak".

Horrek zer pentsatua ematen du: onartezina da oraindik emakume batek eta gizon batek izen berbera izatea? Beharrezkoa da gaur egun oraindik sexu bereizketa izenen bidez argi eta garbi geratzea?

2.26. NATURAREN ERREALITATEAK

Genero gramatikala izan ez arren, naturaren hainbat fenomeno generoarekin irudikatzen ditugu. Genero gramatikala daukaten hizkuntzetan gertaera hori nabarmena da: gaztelaniaz *la luna, el sol, la muerte…*, frantsesez *la lune, le soleil, la mort…* Kontzeptu horiek literaturan eta artean haien generoarekin lotutako irudi bat daukate. Izan ere, alemanez aipatu hitzok beste genero bat izateak (*der Mond* –'ilargia', maskulinoa–, *die Sonne* -'eguzkia', femeninoa-, *der Tod* -'heriotza', maskulinoa) eragina dauka hiztunen irudietan.

Euskaraz badakigu eguzkia zein ilargia femenino moduan ulertuak izan direla tradizioan ("ilargi amandrea" eta "eguzki amandrea"). Badago ikertzea nola ulertu diren naturaren beste elementu eta fenomeno batzuk ere: "heriotza", "lurra", "izarrak", "natura", "hondartza", "itsasoa", "mendia"... Baita zer geratzen den ere gaur irudi tradizionaletik.

Beste errealitate batzuk ere, naturarenak ez direnak, genero baten bidez irudikatzen dituzte generoa daukaten hizkuntzen hiztunek: herrialdeak beraiek, hizkuntza, justizia… Euskal hiztunek kontzeptu horiek (Euskal Herria, euskara, justizia…) nola irudikatzen dituzten iker lerro bat izan daiteke.

2.27. HIZTEGIAK ETA HIZTEGIGILEAK

Testu honetan zehar hiztegi batzuk erabili ditugu. Hiztegi horiek, baina, badaukate zer aztertu generoari dagokionez. Hiru adibide baino ez ditugu jarriko erakusteko emakumeen eta gizonen trataera desberdina dela. Komeni da erreparatzea parekotasun eza ez dela hizkuntzaren ezaugarrien ondorioa (alegia, hizkuntzak ez du horrela adieraztera behartzen), baizik eta autoreen aukeraketa desegokiaren ondorioa. *Euskal hiztegia*-k horrela jasotzen ditu "alu" eta "zakil":

> **Alu**. 1. Emakumearen eta animalia emeen lotsariak, ematutuaren kanpo irekidura osatze eta inguratzen duten zatiak. Ikus **natura; emakuntza**. *Aluaren ezpainak*. 2. *(Erabilera arrunta*). Esangura zehatzik gabeko irain hitza. Ikus **alix(a)**. *Mutil alua. Ken hadi erditik, alua! Alu galanta zen.*
>
> **Zakil**. 1. Gizakiaren eta abere arren ernalkinaren zatia, hazia nahiz gernua kanporatzeko organo zutikorra, sabelpean kokatuta dagoena. Ikus **buztan** (2); **pitxo; pitilin**. *Zakil mokoa. Idi zakila*. [...]

Benetan deigarriak "lotsari" horiek. Eta 2007an egindako hiztegiaren edizioan!

Konpara ditzagun, bestalde, hiztegi berean "andere" eta "andre" jaunarekin ikusteko ea benetan baliokideak iruditzen zaizkigun. Adierak soilik jasotzen ditugu (ez adibideak):

> **Andere**: 1. (*Iparraldeko adiera*). Andrea; jaunaren emaztea. [*Adibideak*]. // (*Iparraldeko edo hizkuntza mailaz goikoa den hitza*). Emakume ezkonduen tituluak (deituraren ondoan) [*Adibideak*]. Ikus **andereño; jaun.** [...].
>
> **Andre**: 1. Emakume itzaltsua, jaunaren emaztea. Ikus **andere**. [*Adibideak*]. // Santei zenbaitetan ematen zaien titulua. *[Adibideak].* 2. Emakumea, bereziki ezkondua. [*Adibideak*]. 3. (Hizkuntza mailaz behekoa den hitza). Emaztea. Ikus gizon. [*Adibideak*].
>
> **Jaun**: 1. Frantziako Iraultza aurreko gizartean, lurralde, herri edo pertsonei buruz esku edo aginpidea zuena, egitura feudaleko jabea (Ikus **jauntxo**); delako gizartean goi mailako gizonei ematen zitzaien ohorezko titulua. Ikus **andre**.

[*Adibideak*]. // Zerbaiti edo norbaiti buruz erabateko eskua duena. [*Adibideak*]. 2. Zernahi gizon, eta batez ere gizarteko behe mailetako ez dena. 3. Zernahi gizonezkori ematen zaion titulua. [*Adibideak*]. // *Jaun-andreak*: hitzaldi baten hasieran erabiltzen den formula. // Hainbat kargu edo bizibide itzaltsuren izenaren eskuinean (*Iparraldean ezkerrean*) erabiltzen den gizalegezko hitza. [*Adibideak*]. [...].

Agi denez, "jaunaren" 2. eta 3. adierak falta dira "andere" eta "andreren" azalpenean; badirudi emakumeei dagokienez ezkontzarekin lotutako tratamendua dela batez ere, gizonekin gertatzen ez den bezala. Baina hiztunok badakigu hori ez dela egia biribila gure egungo gizartean: "andre" tratamendua erabiltzen ari da gizona tratamendua erabiltzen den bezala, errespetua eta formalitate maila jasoa adierazteko. Zergatik ez du, orduan, hiztegigileak adiera hori ere jasotzen?

Hiztegietan "gizon" eta "emakume" bilatzen baditugu, alde handiak aurkituko ditugu bai sarreren tamainan (emakume hitzarena askoz laburragoa delako) bai azaltzen diren espresioen aukeraketan. Bi hitzak *Hiztegi handia*-k jasotzen dituen bezala transkribatuko ditugu jarraian; dauden bezala eta oso-osorik kopiatzen ditugu bien artean dagoen aldea argi gera dadin.

Mujer. 1. Emakume, emakumezko. 2. (Esposa) andre. *Laida ya es mujer*. Laida emakumetu da. **Mujer de la calle**. Emagaldu. **Mujer de la vida**. Emagaldu. **Mujer pública**. Emagaldu.

Hombre. 1. (Individuo) gizon, gizaseme, gizonezko. *El hombre y la mujer*: gizona eta emakumea, gizon-emakumeak. 2. (Especie) gizaki. *El hombre y el mono*: gizakia eta tximinoa. *Los hombres de la Edad Media*: Erdi Ardoko gizon-emakumeak. 3. (Marido) gizon, senar. (Asombro) hara! 5. (Afecto) gizona! ¡Sí hombre! Bai motel!; bai zera! **De hombre a hombre**. Gizonetik gizonera. **Hacer(se) un hombre**. Gizondu. **Te hará un hombre**: Gizonduko zaitu. **¡Hombre al agua!** Gizon bat itsasora! **¡Pobre hombre!** Gizagaixoa! **Portarse como un hombre**. Gizonki/gizontasunez jokatu. **El hombre de la calle**. Kaleko gizona. **Hombre anuncio**. Sandwich gizon. **Hombre de bien**. Gizon zintzo. **Hombre de Cro-Magnon**. Cro-Magnongo gizaki. **Hombre de estado**. Estatu gizon. **Hombre de mundo**. Plazagizon. **Hombre de negocios**. Negozio gizon. **Hombre de paja**. Eskumakila. **Hombre de palabra**. Hitzeko gizon. **Hombre de pro**. Gizon zintzo. **Hombre del tiempo**. Eguraldi gizon. **Hombre lobo**. Giza otso. **Hombre orquesta**. Orkestra gizon, kide bakarreko banda. **Hombre rana**, Giza igel.

Nola da posible "hombre" azaltzeko horrenbeste esapide aurkitzea eta horren gutxi "mujer" adierazteko eta denak 'prostituta' adierarekin? Baina ez da horrela jokatzen duen hiztegi bakarra: beste batzuek antzera azaltzen dituzte bi terminoak (*Zehazki hiztegia*-k, kasu, ia adiera eta adibide berberak ematen ditu).

Esan dezagun berriz arazoa hemen ez dagoela hizkuntzan, baizik eta pertsonen ikuspegi mugatuan. Harrigarria da, bestalde, hiztegigile batzuk "emagaldu" hitza erabiltzean tematzea, horren peioratiboak ez diren hitzak erabili beharrean ("prostituta", kasu).

Oso interesgarria da, azkenik, Echeverriak (2007) *The Basque–English Dictionary*-ren (1989) inguruan egin duen ikerketa. Hiztegian jasotako hitzekin lotutako adibide perpausen ikuspegi androzentrikoa nabarmentzen du.

2.28. AZKENEKO KOMENTARIOA

Ataletan zehar ikusi dugu zein puntutaraino dagoen presente generoa euskaran ere, eta ohartu gara, halaber, generoa ez dugula beti modu egokian adierazten. Eremu horretan euskara aldameneko hizkuntzekin alderatzen badugu, ondorioztatzen dugu nahiko antzekoak direla desegoki adierazteko moduak.

Fenomeno bat nabarmentzen da argi eta garbi gure azterketan. Euskaran ere joera dago hitz maskulinoak modu generikoan erabiltzeko, alegia, talde mistoei aplikatzeko edo ezagutzen ez dugun generoko errealitateei aplikatzeko (hitanoaren erabileran; "semea", "jauna", "anaia" eta abarren hitzen erabileran...). Modu horretan euskararen izaera bortxatzen dugu, berez maskulino generikoa ez baitu ahalbidetzen.

Ezin dugu zehaztu zein neurritan auzo-erdarek eragina izan duten fenomeno horretan; alde batetik, euskaldunak elebidunak izateak esan nahi du hiztunarengan hi hizkuntzak daudela elkarrekintzan eta horrek ondorioak dauzka. Bestalde, bizi garen gizarte ez-pareko hau nahiko arrazoia da, berez, erabilpen desegoki horren atzean dagoen ikuspegia azaltzeko.

Baina generoa daukan lexikoa ez da diskriminazioaren motiborik behinena. Mezuen edukietan adierazten den sexismoa eta emakume eta gizonen trataera asimetrikoa da diskriminazio ohikoena; horiek euskaran ere gertatzen dira beste hainbat hizkuntzatan bezalaxe. Posible da, hala ere, erabilpen egokia egitea arreta apur jarriz gero: hizkuntzak parada ematen digu hiztunoi egoki adierazteko bideak aukeratzeko. Baina horretarako hiztunok kontzientzia hartu behar dugu eta batzuek generoei buruz daukaten ikuspegia eraldatu beharko lukete. Bestela, "Gorputz ederrak hondartzan" eta antzeko mezuak ekoizten jarraituko dute. Gakoa ez dago hizkuntzan, baizik eta atzean dagoen ikuspegian; hizkuntza ikuspegiaren tresna baino ez da, kasu horretan.

Batzuetan egokitasunaren bidea argiago ikusten dugu beste batzuetan baino: hitanoa zuzen erabiltzea ez da zaila; eta "emakumea" edo "neskatila" irain moduan ez baliatzeak erreza dirudi. Beste elementu batzuen trataera, berriz, ez da horren sinplea. "Atsoa" hitzaren konnotazio gutxiesgarriaz ohartu ondoren –"agurea" hitzarekin konparatzen dugunean–, zer egin de-

zakegu? Hitza erabiliko dugu hala ere, ñabardura hori ez baleuka bezala, terminoa “garbitzen” joateko asmoz? Edo ez dugu erabiliko eta beste aukera batzuk bilatu: emakume zaharra, emakume edadetua…? Hor daude, bestalde, emakumeekin batez ere erabiltzen diren hitzak (“txolina”, “pinpirina”…). Erabiltzen jarraituko dugu? Zein da hitz horien erabilpen gomendagarria?

Badago oraindik zer pentsatu eta zer ikertu alor honetan.

3. BIBLIOGRAFIA

Alberdi Larizgoitia, Xabier (2003a). “Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak”, *erabili.com* 2003-10-24.

Alberdi Larizgoitia, Xabier (2003b). “Hitanoa non eta nork erabiltzen duen”, *erabili.com* 2003-10-27.

Alvarez Uria, Amaia (2004). “Euskara eta diskriminazio sexuala”, *Jakin* 142, 47-61 or.

Alvarez Uria, Amaia (2004). Euskara sexista al da?, *erabili.com* 2004-3-8.

Arana, Aitor (2005). *Gay hiztegia*, Tafalla, Txalaparta (Literotura).

Arana, Anuntxi (2005). “Denok JENDE eta denen artekoa JENDARTEA” oharra, *erabili.com* 2005-10-5.

Aristi, Leticia (2002). *Atsotitzen hiztegia: sexuarenak,* Alegia, Hiria.

Azkarate, Miren (1992). “Euskara estandarra eta hizkuntza-sexismoa”, *Ele* 11-12, 91-98 or.

Azkarate, Miren (1992). “Hizkuntzaren azterketa”, *Hezkidetzan Hezkuntza sisteman*, I.P.E.S. Ikastaroak, Formazio Koadernoak 16, 59-66 or.

Barañaingo Udala (2002). *Aipa ditzagun emakumeak! Hizkuntza ez-sexista erabiltzeko gida*, Barañaingo Udala.

Barquín, Amelia (2002). “Hablemos de ¿los niños?, ¿los niños y niñas?, ¿los/-as niños-as?, ¿l@s niñ@s?, ¿la infancia?...”, *Textos* 31, 87-100 or.

Diccionario 3000 euskara-castellano / castellano-euskara. Euskara-gaztelania / gaztelania-euskara hiztegia (2002). Bilbo, Adorez 7.

Echeverria, Begoña (2007). ““Hizkuntza ikasgaiak, genero ikasgaiak: euskara-ingeles hiztegi baten eduki androzentrikoa”, *Hizkunea* aldizkari birtuala.

Eizagirre, Ana, eta beste batzuk (2003). “Zuk zer deritzozu?”, *Emakunde* 52, *Las mujeres y el lenguage* (monografikoa), 26-30 or.

Elhuyar hiztegia. Euskara-gaztelania / castellano-vasco (2006). Usurbil, Elhuyar.

Emakunde (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*, Gasteiz, Emakunde.

Erein euskarazko hiztegia (2005). Donostia, Erein.

Errazu Colás, Mª Ángeles (1995). *Hacia una utilización no sexista del lenguaje,* Instituto Aragonés de la Mujer-Gobierno de Aragón.

Etxebarria, Hasier (1993). "Aberriaren sexoa", *El Mundo,* 1993-6-9.

Etxebarria Murua, Pilartxo (1993). "Lexikoa eta sexismoa", in *Nazioarteko kongresua. Ikerkuntza, irakaskuntza eta feminismoa. Sexismoa, lengoia bide dela. Hizkuntzaren baitako eta kanpoko elementuak*. Donostia eta Gasteiz.

Garcia, Mikel (2007). "Alabak ezin Amets izan eta semea ezin Izar deitu", *Argia,* 2007-10-28.

García Meseguer, Álvaro (1988). *Lenguaje y discriminación sexual*, Bartzelona, Montesinos, 1. ed.: 1977.

García Saénz, Jesús María (1998). "El lenguage, más que palabras. Ser nombradas, un derecho de todas las personas", "Euskararen berezitasunak", *Emakunde* 32, 44-51 or.

Gorrotxategi Nieto, Mikel (2001). "Euskal izendegia gauzatzerakoan erabilitako irizpideak", in Gorrotxategi Nieto, Mikel eta Salaberri Zaratiegi, Patxi, *Euskal Izendegia*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 23-25 or.

Hiztegi handia castellano-euskara, euskara-gaztelania (2002). Bartzelona, Vox.

Iantzi, Maider (2008). "Pertsona izenak. Zergatik ezin diot alabari Amets deitu?", *Gara*, 2008-2-10.

Ibarra, Itsaso (2007). "Hitanoa. Berorrek nahi baduzu egingo yau", *Argia,* 2007-6-3. 53-54 or.

Juanena, Agurtzane (1991). "Hizkuntza sexismoa eta euskara", *Jakin* 65, 97-112 or.

Knörr, Henrike (2001). "Hitzaurrea", in Gorrotxategi Nieto, Mikel eta Salaberri Zaratiegi, Patxi, *Euskal Izendegia*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 9-10 or.

Medrano, Bea (2006). "Euskaraen erabilpen ez sexista astialdian" '*Aisia euskaraz bizi*' jardunaldiak, Durango, 2006-11-23, http://www.topagunea.org/jardunaldiak/.

Mendiguren Elizegi, Xabier (2003). "Emakumeen bakarrizketari buruz", *erabili.com* 2003-10-27.

Mujika, Luis Mari (1994). "Sasi-femeninoak izenetan", *El Diario Vasco*, 1994-16-3.

Muruaga, Begoña (1993). "Sexista izango ez den euskararen erabilerarako gomendioak", *HABE* 223, 12-14 or.

Muruaga, Begoña (2003). “Sexismo en el lenguage. Sexismo en el mensaje”, Emakunde 52, *Las mujeres y el lenguage* (monografikoa), 20-23 or.

Oñederra, Lourdes (1993). “Hizkuntza eta emakumea. Hizkuntza-azterketaren lehentasunen historia. Zenbait abiabide” in *Nazioarteko kongresua. Ikerkuntza, irakaskuntza eta feminismoa. Sexismoa, lengoia bide dela. Hizkuntzaren baitako eta kanpoko elementuak.* Donostia eta Gasteiz.

Orzaiz, Ion (2004). “Albiste sexisten aurkako liburua aurkeztu dute”, *Berria.info*, 2004-2-7.

Ruiz Bikandi, Uri (1993). “Genus-sexus: hizkuntza generodunak eta hizkuntza genero-gabeak”, in *Nazioarteko kongresua. Ikerkuntza, irakaskuntza eta feminismoa. Sexismoa, lengoia bide dela. Hizkuntzaren baitako eta kanpoko elementuak.* Donostia eta Gasteiz.

Sarasola, Ibon (2005). *Zehazki gaztelania-euskara hiztegia castellano-euskara*, Irun, Alberdania.

Sarasola, Ibon (2007). *Euskal hiztegia*, Donostia, Elkar.

Segurola, Iñaki (1992). “Gizon, gizarte, gizagaixo” *Egunkaria*, 1992-4-30.

Unanua Garmendia, Miguel Ángel (2008). *To eta no sesioan euskaraz*, Donostia, Utriusque Vasconiae.

Zugasti Arizmendi, Arantza (2003). “La administración toma la palabra”, *Emakunde* 52, *Las mujeres y el lenguage* (monografikoa), 31-35 or.